

LISIPE▼

feminismoa
eta politikaren
eraldaketak

MARI LUZ ESTEBAN

MARI LUZ ESTEBAN

Feminismoa eta politikaren eraldaketak

LISIPE



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2017 Mari Luz Esteban

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

editorea: Jule Goikoetxea

Lehen edizioa paperean: 2017ko martxo

Edizio hau: 2017ko martxo

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

HITZAURREA

JULE GOIKOETXEA

Panoramika bat dakarkigu Mari Luz Estebanek, Lisiperen bigarren alean. Euskal Herrian feminismoak bizi dituen aldaketak eta horiek sorrarazten dituzten erronka berriak aurkezten ditu. Feminismoa, fenomeno historiko eta politiko gisa, praktika multzo eta pentsamendu korrante ezberdinek osatzen dute, eta, beraz, feminismoaz eta feminismotik egiten diren ekarpenak testuinguru politiko zehatz batean kokatu behar dira. Hala egiten du Estebanek, lehen orrialdeetan, egungo eraldaketa politikoek Euskal Herriko feminismoan (izan) duten eragina azaltzen duenean. Azpimarratzekoa da, Lisipeko aurreko alean bezala, autorearen lerrokatze esplizitua hasieratik. Metodologia eta epistemologia feministaren oinarria da tokikotze hori, espazio (fisiko eta intelektual) neutro eta inparzialen existentzia alboratuz.

Politika berrasmatzen ari gara? Galdera horrekin irekitzen du elkarrizketa Estebanek. Nolakoa da egungo mugimendu feminista? Zein izan da azken hamar-

kadetan ezagutza sortzeko eta zirkularazteko erabili den metodologia nagusia feminismoan? Nola iristen da egun gizartera edo beste gune batzuetara, gune feministetan sortutako ezagutza?

Teoria eta praxi politikoaren berrikuspenak ez dira aurreko hamarkadetakoak bezain zurrunik, eta errealitatearen azterketa irekiagoak eta konplexuagoak proposatzen ari direla uste du Estebanek, eta artikulazio edo emaitza interesgarriak sortzen dituzte aurreko kultura politikoarekin nahastean. Lehen Emakumeen Asanbladak eta elkarteak ziren biltzeko gune ohikoenak; orain berriz, ohiko elkarteez gain, feminismoko graduondoko eta masterrak, Emakumeen Etxeak eta sare sozialak ere elkargune bilakatu dira. Horrek erlazio zuzena du ezagutza transmititzeko eta produzitzeko eran, elkartasuna sortzeko eta feminismoaren zabaltzea sendotzeko moduetan.

Zeintzuk dira politika (feminista) baten arrakasta bermatzen duten ahalmenak edo trebetasunak? Noraino instituzioekin/instituzioetarako lan-egiteak lekua eta indarra kentzen dizkie herri-mugimenduei? Noraino dira bateragarriak erreforma eta haustura?

Botereaz hausnarketa sakonagoa eta zabalagoa egitera gonbidatzen gaitu eta esaten du indarkeria

matxistaren adiera ezberdinek, eta haren kontrako praktika eta ekimen berriek aldaketa iradokitzaile batzuk ekarri dituztela, nahiz eta tentuz aritu gai horren inguruan, indarkeriaren esanahiaren orrazketa proposatuz.

Zeintzuk dira ahalduntze terminoaren gaurko erabilerak? Eta erabilera horien ondorioak? Nola egitura-tzen da lidergoa? Nola babestu eta kritikatu aldi berean boterean dauden feministak? Nola ehundu emakumezko horien eta mugimenduaren arteko harremana? Hamaika galdera eraldaketa bakoitzeko, hamaika erantzun galdera bakoitzeko.

Zaintzaren inguruan sortutako talde eta proposamenak biltzen ditu Estebanek azken orrialdeetan, eta ekonomia feministaren ekarpena azpimarratu. Emakumeen alienazioa berarekin ez dakarren elkar babestearen teoria baten alde egingo du amaieran, egungo familia harremanak eta ideologiak gainditze bidean. Nola ekidin harreman sozialetan sortzen diren hierarkia fisiko eta kontzeptualak? Zergatik du balio sozial handiagoa familiak, adiskidetasunak baino? Zergatik du amodioak egitura eta itxura hetero-normatiboa? Nola apurtuko ditu feminismoak emakumeak bestela-

kotzen duen laguntasunaren eta amodioaren mailakatzeko patriarkala?

Ale honetan hamaika galdera aurkituko ditugu erantzun bakoitzeko eta hamaika eraldaketa konfrontazio bakoitzeko. Ondo lotu gerrikoak.

*Basauriko
Emakumeen Taldeko
nire adiskideei*

HAUSNARREAN

Feminismoak azken berrogei urteetan izan dituen ezaugarri eta eraldaketak hartuko ditut hizpide liburu honetan, nahiz eta aipatuko ditudan hainbat ideiak feminismoaren mugak gaindi ditzaketen.

Gure feminismoa, edozein feminismo legez, heterogeneoa izan da eta da, askotarikoa, talde, jarrera eta jardun oso ezberdinekin, kontrajarriak bezain bateragarriak.

Ez dut aukerarik aniztasun horren guztiaren erretratu osatua eta xehatua egin ahal izateko. Horren ordez, gailentzen diren zenbait joerari erreparatuko diet, dauden eremuak aintzat harturik: elkartegintza, feminismo instituzionala, profesionala, akademikoa... Jakitun gutariko nahikotxo esparru batean baino gehiagotan gaudela eta horrek konplexutasun handia ematen diola gure aktibitateari eta, beraz, analisiari.

Azken urteetan, gizarte edo herri mugimenduetako zenbait adituk “mugimendu” kontzeptuaren ezegokitasuna aipatu dute. María Martínez EHUKo soziologoa (2015), esate baterako, problematizatu du termino hori Estatu espainiarreko feminismoaz egin duen dok-

tore-tesian, eta “mobilizazio feministez” hitz egitea proposatu du. Gaur egungo errealitatea askotarikoe-gia eta zatikatuegia dela argudiatu du, feminista guz-tien egitekoa kontzeptu horretan laburbildu ahal izate-ko.

Pentsakizun hori iradokitzailea izanik ere, “mugi-mendu feminista” kategoria lehenetsiko dut nik, oso-tasun batean bizi garela konbentzituta bainago, unita-te konplexu batean, tarteka zatikatua eta kontrajarria. Are gehiago ohartuta euskal feministok batera jarduteko eta agertzeko erakutsi ohi dugun prestasunaz.

Beste era batera esanda, feminista izatea praktika pluralen gainean eraikitzen den identitate kolektiboa litzateke, feminismoa bera nola definitzen dugun baino elkarrekin zer egiten dugun (Hernández, argita-ratzear).

Feminismoa mugituz joan da eta doa. Etengabe ekiten. Etengabe eraldatzen. Haren mugimendua ez da oraindik eten. Gorabeherak gorabehera, aldaketak aldaketa.

Nolanahi ere, azken hamar urteetan antzematen diren eraldaketek ez dute bakarrik hitz egiten feminis-moaren baitako transformazioaz, euskal gizartearen eta euskal politikaren transformazio orokorraz baizik.

Basaurikoa (Bizkaia) naiz, eta Basauriko Emakumeen Taldean (eta Bizkaiko Emakumeen Asanbladan) eman nituen nire lehen urratsak feminismoan. Industriak elikaturiko eta migratzaileek gorpuzturiko herri langile eta borrokalari batean hazia eta hezia izateak moldatu du nire politika ikusteko eta praktikatzeko manera. Urteak aurrera joan ahala beste zenbait ekimen eta esparrutan ere jardun dut. Gaur egun Basauriko Emakumeen Taldean jarraitzen dut eta Marienea Basauriko Emakumeen Etxean parte hartzen dut. Nire lanbideak ere beti egon dira feminismoari lotuta. Zenbait urtez Basauriko Familia Plangintzako medikua izan nintzen eta orain gizarte antropologiako eskolak ematen ditut Euskal Herriko Unibertsitatean, antropologia feministaren esparruan ikerketak egiteaz gainera. Esperientzia askotariko horrek berebiziko eragina izan du ere nire ibilbidean.

Baina nireaz harago ohikoak diren jardunbide bikoitz edo hirukoitz horien arteko harremanez pentsatzea premiazkoa dela esango nuke.

Berrogeita hamazazpi urte ditut. Ni bezala, feminista kopuru handi bat edadekoa da dagoeneko. Bartzuek ekintza politikoa atzera utzi dute baina iritzia emateko edo gertaera handitan agertzeko prest jarrai-

tzen dute. Beste batzuek jo eta ke diraute, beti legez, nork bere eremuan.

Maialen Lujanbiok esan du: *“Ez gara nahi bezain gazte zahartuko. Azala leun eta eder... Heldu ere, ez gara uste bezain gazte heldu... Ez uste bezain haustaila, ez uste bezain desberdin”*.

Mugimendu feministak bizitza luzea du. Berrogei urte gutxienez (historia nola idazten den). Bejondeigula. Baina adinak ematen digun eskarmentua egunero-kotasuna arintzeko aukera bezain motxila astuna izan daiteke. Gazte batek injustizien aurrean izan deza-keen energia eta freskura jada galduta egotearen arriskua ere bai. Eskarmentua ez baita dena.

Zahartzeaz bat gaztetzen ari da feminismoa, eta belaunaldi ezberdinak batera egoteak geure buruari aitortu nahi diogunak baino inportantzia handiagoa dauka.

Adin diferenteetako emakumeak betidanik egon dira feminismoan. Gazteen talde propioak sortu ziren 80ko hamarkadan baina batzuen eta besteen arteko adin aldea ez zen oraingoa bezalakoa. 2008an izan ziren Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministek ondo agerian utzi zuten feministen belaunaldi berri oso bat

bazegoela eta etorkizuna nolabait bermatuta zegoela. Pozgarria izan zen.

Feminista gazteek berariazko jardute eta proposamenak egin nahi dituzte eta egiten ari dira. Horretan daude, beren lekua topatu gura eta leku hori topatu izanaren artean ekilibrista. Inoiz baino unibertsitate tituludun gehiagorekin. Asko langabezian edo enplegu prekariotan.

Haatik, gazteen artean ere bereiz daitezke adin-tarte eta aztura ezberdinak. Ez da ez belaunaldi bakarra ezta homogeneoa ere. Baina orokorki esan daiteke mugimendua gazteen eskuetan dagoela gero eta gehiago, instituzioetatik aparte dagoena behinik behin. Eskerrik asko!

Eta horren gazte ez garen asko hor gaude, egiten ari direna estimatu guran baina gazteek noizbehinka duten oroimen faltaren aurrean, iragana-beti-dahobea pentsatzeko tentazioari aurre eginez.

Teoria feministak bere edukiak berrikusteko eta eraberritzeko dohain izugarria erakutsi du. Geroz eta zabalagoa, geroz eta konplexuagoa, geroz eta sofistikuagoa, geroz eta abstraktuagoa izateraino. Horren konplexua eta horren sofistikatua non behin baino gehiagotan ere praxitik atzetu egiten zaigun.

Beste hainbat galderaren artean, teoria eta praxi feministaren arteko lotura pixka bat desorekaturik ez ote dugun galdetu nahi diot neure buruari liburu hone-tan.

Feminista (gazte) ezin-hobeto-prestatuz beterik dugu herria, diagnostiko, proiektu eta planak burutze-ko taxuz ikasiak. Batzuk lanean ari dira, beste batzuk aukera baten zain. Ni ez naiz feministok leku-guztietara-iristeko-kapaz edo edozein-arduratan-ondoen-egin-go genukeenak garela defendatzen duen horietakoa. Gainera, gauza bat da prestakuntza teorikoa eta beste bat, oso bestelakoa, politikaren larre zabal eta korapi-latsuan egokiro jokatzeko jakitea edo jokatu ahal izate-a.

Bestalde, teoria feminista eta teoria politiko “oro-korra” mundu paraleloetan bizi dira maizegi, elkargu-ne gutxirekin eta, egotekotan, emakumeen bizkar. Po-litikaren eremua kontrolatzen duten gizon-sare bote-retsu eta sarri ikusezinetatik apartaturik. Modu kaba-lleroso eta politikoki zuzenean, hori bai.

Badira gizon feministak, nola ez, asko nabarmen-du barik baina feminismoarekin zinez konprometiturik. Ezinbestekoak dira.

“Emakume” (eta “gizon”) terminoak erabiliko ditut testu honetan, betiere zentzu sozialean, gu guztiok emakume edo gizon izendatuak garen neurrian. Idatziko ez ditudan komatxoak jar ditzala irakurleak irakurri ahala.

Liburu honetan, azken urteetan idatzi ditudan zenbait testutatik eta han-hemenka emandako hitzaldietatik tiraka egingo dut, neure ideiak sakontzen, ordenatzen eta osatzen saiatuz. Garrantzitsuak diren gai asko ez ditut ukituko.

Sarrera honetaz gain, hiru multzotan daude antolatuta liburu honen edukiak: bi atal gehi epilogo bat.

Politika berrasmutzen ari gara? galderarekin hasiko naiz, azken berrogei urteotako mugimenduaren ezaugarri nagusiak eta berauek izan dituzten eraldaketak gogoetagai. Bertan, eremu politikoan antzematen ditudan hainbat erronka aletuko ditut.

Idazten hasi nintzenean aldaketak ez zirela horrenbesterako pentsatzen nuen, lehengo izaera bera mantentzen genuela, nola edo hala. Liburuaren idazketa bukatutakoan aitortu behar dut jarraitutasun dezente topatu ditudala baina aldaketa sakonak ere bai, gure aro berriaren ezaugarri eta gogoetagarri. Zenbaitzuk kezkarriak ere bai.

Zenbait izarguneren argiak eta ilunak izenburua duen liburua den bigarren zatian, gaur egungo feminismoan garrantzi osoa duten hiru gai jorratuko ditut: boterea, indarkeria eta zaintza. Azken biak zelai feministaren erdi-erdian daude, giltzarri bihurtuta, eta horri buruz ere arituko naiz, azterketa sakona egin gabe eztabaidarako guneak non ikusten ditudan zehaztuz.

Ideia batekin bukatu nahi dut liburua (eta hortxe, epilogoan): feminismoa *gorputz kolektibo* gisa ikustea/bizitzearena, intelektu, arrazoi, emozio, sentipen, irudimen... dena batera: *elkarrekin-egote* eta *elkarrekin-ekite* bat.

Gustatuko litzaidake irakurleak proposamen modura hartzea hemen agertzen diren ideiak, eztabaidarako abiapuntu gisara, eta deslai ager daitezkeenak ere bere pentsaeraren eta bizipenen galbahetik pasatzea.

Hausnarrean izena jarri diot sarrera honi, Argentinan behien artean hezia eta egun lodifobiaren kontrako feminista den Lucrecia Masson-ek (2015) proposatu duen “epistemologia hausnarkariak” gatibaturik.

Argentinarek bezala, euskaldunok baditugu lotura materialak eta sinbolikoak behiekin. Eta feministak,

zerbait izatekotan, betizuak gara, basatiak, hezigaitzak, larrekoak.

Hona pentsamendu hausnarkariaren zenbait apunte Masson-en hitzetan:

Behien ibilera ondo gordeta gelditu zen nire erretinan, motel-motel dabiltza, elkarrekin.

*Hausnarkaria adeigabea eta ikonoklasta da.
Ez du sinesten bere ideietan, ez-originaltzat du bere burua.*

Badaki hitz egitean itzultzen ari dela.

Hausnarkariak beti kolektiboa den asmakuntza politiko ariketa baten alde egiten du.

*Berarentzat eta bere komunitatearentzat erreminten bila ari da,
ulertuz erreminta horiek ez direla erdiesten den zerbait,
etengabe eraikuntzan dagoena baizik.*

[...]

Metodo hausnarkaria:

motela da, nagia, ez oso produktiboa, ez oso sexya, handia, gehiegizkoa, larru gogorrekoa, ez oso delikatua, ez oso fina, motel dabil, alferra, utzia, haren formetan.

Epistemologia hausnarkariak salbamenduaren diskurtso zurrinak errefusatzek ditu. Uste du badaudela kontakizun posible asko. (Masson, 2015:5,9,10,19,21).

Ilido beretik joan nahi dut nik. Baieztapenak boro-bildu baino galderak eragin, nahi dutenekin eta nahi dutenen artean solastatzeko: zahar zein gazte, aditu zein aritu, teoriko zein praktikante, profesional zein aktibista, feminista publiko zein anonimo, emakume zein gizon izendatu...

Kategoria horiek eta beren arteko talkak desafiatur.

POLITIKA
BERRASMATZEN ARI GARA?

ENBATAKA HEDATU ZEN MUGIMENDU HERRITARRA

Ana de Miguelek (1995) idatzi du feminismoa edozein garaitan eta edozein tokitan topa daitekeela, *“emakumeek patriarkatupean jasan duten patu bidegabe eta mingotsaz kexu azaldu, eta aparteko egoera, bizitza hobeagoa aldarri izan duten guztietan”* (1995:217). Baina, berariaz, aldarrikapena modu koherente eta antolatuan artikulatzen eta bultzatzen dutenean, bai teorian bai praktikan (ibidem).

Dolores Julianok (2008) sakondu du ideia horretan: *“Feminismoaren iraultza handia ez da izan arauak ez betetzea, hori betidanik egin izan dute emakumeek, baizik eta beraiek auzitan jartzea, beren ekitate falta eta suposatzen duten justiziarik eza azaleratzea”* (2008:14).

Olatuka neurtu ohi da Mugimendu Feministaren historia. Bat. Bi. Hiru. Feminismo ilustratua, mugimendu sufragista, feminismo garaikidea. Edo beste batzuen esanetan: sufragismoa, 60-80etako feminismoa, feminismo postmodernoa. Ez dago adostasunik.

Baina, itsasoari begira dagoen herri batean bizi arren, olatuen tempo hori ez da gurera guztiz egokitzen.

Bi aro bereiziko nituzke nik 1976az geroztik gartatu den euskal feminismoan: XX. mende amaierakoa eta XXI. mende hasieratik gaur arte berrituz joan dena.

Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat liburu nahitaezko eta mardularen egileek (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015) gogorarazi digute XX. mende amaierako feminismoaren lehen zantzuak Baionan kokatu behar direla, 1976an.

Pixka bat geroago sortu eta enbataka hedatzen hasi zen mugimendua Hegoaldean, batez ere emakume gazte eta langileen artean (Zabala, 2008:27). 1977an, 3.000 emakume inguru bildu ginen Leioako campusean egin ziren Euskal Herri mailako I. Jardunaldi Feministetan. Hurrengo urteetan Bilboko kaleak hartu zituen abortatzeko eskubidearen leloaren oihartzunak Euskal Herritik kanpora ere zabaldu ziren.

Hasiera-data hori ere hartuko dut nik liburu honen abiapuntu, nahiz eta jakin hori baino askoz lehenago feminismoaren aurrekariak izan zirela gurean, bana-

kako zein taldeko ekimenak. Mende zaharraren azken bi hamarkadak funtsezkoak izan ziren egunotan eza-gutzen dugun feminismoaren egituratze eta bilakae-ran.

Lehen aroko feminismoaren erritmoa markatzeko 1984an eta 1994an burutu ziren Euskal Herri mailako II. eta III. Jardunaldiez baliatuko gara.

1984 arte nork bere gorputzaren gainean erabaki-tzeko eskubideak ardaztuko duen mugimendua, hortik aurrera, sendotuz eta dibertsifikatuz joango da, hainbat gai tartean: indarkeria, antimilitarismoa, porno-grafia, hezkuntza, osasuna eta boterea; emakumeen askotarikotasuna ere gero eta presenteago (Aresti eta Aranguren, argitaratzear). Hainbat enpresatako ema-kume langileen (edo langileen emazteek lagunduriko) grebak ere azpimarragarriak dira: Suchard, Moulinex, Artiach, Michelin, Olarra, Euskalduna... Eta zerbitzu publikoetan egindako protestak (Hernández, argitara-tzear).

1994ko Jardunaldietan, aldiz, agerian geldituko da emakumeen artean dauden ezberdintasunak eta bo-rrrokarako esangura berrien bilaketaren beharra, bai aktibismoan bai diskurtsoetan (ibidem): elkarteak ar-galdu eta feminismoaren kaleko presentzia gutxitu

egingo da. Elkarteen jarduera, gehienbat, data zehatzten ingurura murriztuko da: martxoak 8, ekainak 28 eta azaroak 25.

Mende berriarekin hasten den bigarren aroan, berriaz, sakondu egingo da aldeaz aurretik hasita zegoen dibertsifikazioa, eta jarduera feminista lau modu handitan antolatzen da: elkartegintza, feminismo instituzionala, profesionalizazioa, hezkuntza/ikerikuntza.

Teoria eta praxia jorratzeko modu berriak ere sortuko dira *queer* teoria eta transfeminismoaren babespean, eta Medeak taldearen eskutik gai eta adierazpen ugari birformulatuko dira: sexualitatea, transexualitatea, pornografia, prostituzioa...

Azken hogeitaz urte honetan feminismoa hedatzeko baliabideetan eta egituretan gertatu den berrazmatze prozesu sakona ere nabarmendu behar dugu. Mende hasieran sortuko dira, esate baterako, Bizkaian lehen Jabekuntza Eskolak, oraingo Emakumeen Etxeetako ernamuinak.

Nola dakigu ondo goazela?, galdetu zuten bi feministak Hernanin, Emakumeen Etxearen sorreraren kariaz antolatutako jardunaldi batean. Besteak ikaratzeko dugun gaitasunean arreta jarritz, gehitu zuten.

Ez dakit feminismoak ikara sortu duen haren inguru hurbil zein urrunean. Argi dago nahiko genukeena baino askoz txikiagoa izaten dela gure eragina. Baina deserosotasuna bai, horixe erein dugu, lanabes bikaina iruditzen zait, gainera, kanpora eta barrura begira. Deserosotasuna erne egoteko eta ziurtasunak uxatzeko modurik eraginkorrenetakoa baita.

XX. mende amaiera bitarteko feminismoaren ezaugarriak eman beharko banitu, mugimendu unitarioa, herritarra, berdinzalea/horizontala eta antisistemikoa izan zela nabarmenduko nuke.

Horrelakoa izaten jarraitzen al du?

1.— Mugimendu unitarioa izan zen.

Unitarioa izatea da ezberdinek elkarrekin jarduteko gaitasuna edukitzea. Euskal izaeraren ezaugarrietako bat? Feminismoarena, zalantzarik gabe.

Nolakotasun horretan faktore anitzek parte hartuko dute, baina, feminismoaren kasuan behintzat, badeute zerikusia tarte luze batean Hego Euskal Herrian—Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan— elkarre nagusiak izan ziren Emakumeen Asanbladek, antolaketa molde behinena eta zientoka emakume erakarrizituena.

Bertan, beste inon antolatuta ez zeuden emakumeak elkarrengandik oso bestelako jarrera zuten elkartetako kideekin batzen ziren: alderdi politikoetakoetako partaideak eta talde autonomoetakoak, sindikatuetako ekintzaileak, auzo elkartetako kideak...

Feminista abertzaleek erakunde propioak eduki dituzte betidanik (Aizan, Egizan eta aurten 15. urtebetetzea ospatzen ari den Bilgune Feminista), zapalkuntza hirukoitzaren ideiatik (emakume, langile eta euskaldun moduan) abiatuta. Emakume abertzaleak ere ba zeuden Asanbladetan.

Ideologia politikoaren polikromia gaur arte.

Dena ez zen harmonia. Dena ez zen partaideen arteko adostasuna. Noiz edo noiz liskarrak lehertzen ziren: errealitatea irakurtzerakoan, estrategiak finkatzerakoan, ekintzak diseinatzerakoan, euskal gatazkari zegozkion kontuak baloratzerakoan... Aldian behin, feminista autonomoek manipulazioa eta entrismoa leporatzen zizkieten alderdi politikoetakoiei, edo lesbiana bestekin haserretzen ziren ez omen zutelako lesbianismoaren gaia ganoraz jorratzen, edo...

Gogoan dut nire burua, gazte lañoa baino ez nintzela, kalapita horien guztien aurrean ikusle eta ikasle.

Baina egunerokotasunean sentipen bat gailentzen zen, gailentzen da gaur egun ere, egon zitezkeen bestelako militantzien aurrean, gu guztiongan, feminismoa zela/dela nagusi. Eta hori nahikoa zen iskanbilak bideratzeko.

Denbora aurrera, Gipuzkoako Emakumeen Asanblada eta Nafarroako Koordinadora Feminista desegin eta Arabako eta Bizkaiko Asanbladak beste edozein taldetako tamaina eta izaera hartuz joan ziren. Eta atzerago Asanbladetan sartzen ziren zenbait emakume-talde desagertu ziren (batez ere 90eko hamarraldian) eta, pixkana-pixkanaka, elkarte berriak ere jaio.

Feminista guztiak elkarrekin jarduteko joera horrek, tankeraz aldatu arren, ez du bere indarra galdu. Eta orain arte ere koordinatzeko eta elkarrekin gutxiasko egoteko prestasun eta gaitasun nahikoa dugula erakutsi ohi dugu, hainbat kanpaina, gai eta ekimenen bueltan.

Data seinalatuetan antolatu ohi diren ekitaldiez gain, abortatzeko eskubidearen aldekoa eta indarkeria matxistaren salaketa lirateke etsenplurik gertukoenak. Eta ekimenei dagokienez, bi aipatzearren, Mendekotasuna dutenak Laguntzeko Euskal Sistema Publi-

ko baten aldeko Plataformaizan zena, edo geroago indarra hartu duen Emakumeen Mundu Martxa.

Hala ere, geroago komentatuko dudan moduan, eta nahiz eta kanpaina/ekimen bateratuak eta koordinatuak egiteko gaitasuna soberan eduki, Asanbladak ezaugarritzen zituen ezberdinen arteko eztabaida zabalak bezain kartsuak praktikatzeko eredia apalduz joan da. Kontrakoa irizten badiogu ere.

2.— Mugimendu feministaren bigarren izenondoa, herritarra izatea da.

Euskal mugimendu feminista herritarra izan da, oso deszentralizatuta egon baita eta auzo eta herrietan sakonki errotuta. Armiarma-sare bat bezala zabaltzen zen lurraldetik.

Joyce Gelb-ek, 1992an argitaraturiko “Feminismo y acción colectiva” izeneko artikulu batean, hiru tesuinguru geografiko-historiko-politiko bereizi zituen feminismoaz hitz egiteko: britainiarra, iparramerikarra eta suediarra. Amerikako Estatu Batuetako feminismoan, funtsezkoak izan dira, besteak beste, presio talde deritzenak, lobbyak, zeintzuek gobernuan ere eragiteko ahalmen itzela erakutsi duten egunotaraino. Suediar feminismoaren ezaugarri nagusietako bat,

aldiz, Estatu-feminismoa izatearena da, aukera berdintasuna lortze alderako neurri instituzionaletan aditu bezain eredu. Erresuma Batuko feminismoak, azkenik, askoz ere enfasi handiagoa jarri ohi du (auto-reak aztertzen duen garaian, behintzat) ideologia feminista zabaltzen, erakundeetatik aparteko mugimendu autonomo eta auto-antolatua lehenetsiz eta Estatuari gutxiago begiraturaz.

Sailkapen horri jarraituz Euskal Herriko feminismoa britainiarraren tankerakoa izan da, tokian tokiko auto-antolaketa indartzen saiatu dena eta emakumeek berek kudeatutako zerbitzuen sorrerara bideratua.

70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran euskal mapa koloreztatu zuten Familia Plangintza Zentroak (ikastolekin batera gure gizartean egon den zerbitzu publiko-eredurik herritarrena, nire ustez), edo gaur egungo Emakumeentzako Informazio Zentroak dira gure testuinguruan horren adibiderik nabarmenenak. Aurrerago hizpide izango ditudan Emakumeen Etxe ugaltu berriak ere eredu horretan kokatu beharrean gaude.

Lehenago egindako galderari erantzunez, gaur egungo feminismoak noraino jarraitzen duen herrita-

rra izaten, esango nuke, elkarteei dagokienez bederen, eredu horrek indarrean dirauela. Dena den, elkar-teez gaineko feminismo mota ezberdinen garapenak (erakundeetako, berdintasun-arloa, hezkuntzako, ikerketako...) axola handiko ñabardurak eragin ditu feminismoan.

Posible al da erakunde, unibertsitate edo bestelako zentro ofizial batean dagoen feminismoa herritarra izatea? Zeintzuk lirateke mugak? Zeintzuk baldintzak?

3.— Aipatu dudan feminismoaren hirugarren ezaugarria, horizontala edo igualitarioa izatea da.

Eta, maila batean, horren bokazioa izaten jarraitzen du, aldaketak aldaketa. Berriz ere, igualitarismoa edonongo feminismoaren ezaugarri orokorra izaki ere, euskal kultura-ezaugarria izango litzateke, beste hainbat eremutan ere aurkitzen baitugu.

Berdinzaletasun-egarri horrek jarrera kolektibista garatzeko bidea eman dio feminismoari, anonimotasunean jarduteko tenorea, ezagutza kolektiboa sorraziz eta indartuz. Orain desagertzeaz leudekeen anonimotasuna eta kolektibotasuna. Geroago sakonduko dut ideia horretan.

4.— Aipatu dudan laugarren bereizgarria, izaera antisistemikoa da, aurreko hirurekin estuki loturik hau ere.

Oso trebeak izan gara hemengo feministak legealdaketak (dibortzioa, abortua, enplegua...) eta erakunde-aldaketak helburu zituzten ekintzak bultzatzen, betiere herritarron mobilizazio eta antolaketa autonomo eta alternatiboak alde batera utzi gabe.

Izan ere, orain ez gaude 80ko hamarraldian, non, esate baterako, Emakunde (EAEko Emakumearen Euskal Institutua, 1988) sortu zenean, mugimenduaren parte handi batek “Emakunde no nos cunde” oihukatzen genuen. Honetan, ere, mudantzak antzematen dira, aurrerago ikusiko dugunez.

Beste politika eremuetan bezalaxe, aldarri erreformistak eta haustaileak izan nahi dutenak uztartzeko joera nagusitu da gure artean. Jardunbide hau topa daiteke maila ezberdinetako erakunde eta politiketan, udaletan eta foru aldundietan kasurako, non sistema-ren kontrako protestak eta jarduerak antolatzen dituzten pertsona berak berdintasunaren aldeko lanpostuetan diharduten lanean.

Hauxe da, nire ustez, Euskal Herrian bizitzen ari garen une historikoaren marka edo marketako bat.

Hots, ez dugu izaera herritarra eta iraultzailea galdu gura baina, hein berean, erakundeetan parte hartzeko prest gaude, parte hartzen ari gara, kontraesanak kontraesan. Eta fenomeno horren inguruan ez da me-reziko lukeen gogoeta garatzen ari.

Noraino mantentzen dira aipatu ditudan ezaugarri horiek guztiak XXI. mendean? Horretaz arituko naiz ondoko azpiatalean.

ALDAKETAK ETA AUKERAK

Berlingo Harresiaren suntsiketak harrotu zuen lehendik ernaturik geneukan sentipena: teoria politikoek eta eraldaketa sozialerako proposamenek berrikuspene sakona behar zuten. Baina 2008tik aurrera hainbat herrialdetan eztanda egin zuten matxinadek derrihortu gintuzten politika goitik behera birpentsatzera.

Lurrikara horrek “mugimendu global berriak” sorrarazi ditu (Calle, 2003:6), non betiko mugimenduen ezaugarriak beste era batera konbinatu diren: batetik, jasandako indarkeria mota ezberdinak artikulatzeko joera dago; baina, aldi berean, ez zaio jada funtsik ikusten eskaera/mobilizazio mota guztiak modu unibokoan gain hartuko dituen gatazka nagusi edo antolaketa politiko bakar bat lehenesteari.

Hemen ere antzerako prozesu batean murgildu gara, hori bai, euskal gatazkek eragin dituen berezitasunekin. Horrela, azken hamarkadan gertaturiko krisi finantzarioak, Estatu espainiarraren trantsizio demokratikoaren porrotak, eta borroka armatuaren amaierak aro berri baten hasiera bultzatu dute, eta sentipen nagusiak, nire ustez, hauek dira: nekea, ziurtasun eza,

eta *impasse* sentsazioa (baina, aldi berean, itxaropena).

Testuinguru horretan, identitatearen irakurketa meharretan eta zurrune gitzat hartzen diren praktike-tan oinarrituriko antolaketa-eskemen gaineko kezka zabaldu da, jende gaztearengan batez ere. Hain justu beraiek dira krisiaren eragina eta Estatuaren errepre-sioa bereziki jasaten ari direnak. Eta politika egiteko eta militatzeko ohikoa izan den kultura birpentsatzen ari da, propio diseinaturiko metodologiak asmatuz.

Horren adibiderik borobilena Joxemi Zumalabe Fundaziokoak egiten ari diren bide oparoa litzateke. Duela urte batzuk “Militantzia moduen inguruko haus-narketa” bultzatu ondoren, *Dabilen harriari goroldiorik* ez liburua (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2014) argita-ratu zuten, aktibista mota askok parte hartu zuten prozesuaren emaitzekin. Eta beraiek dira baita filoso-fia horren hedapenaren arduradun nagusietakoak ere.

Haatik, errealitatean, lehengo eta oraingo meto-dologiak eta joerak nahasturik leudeke.

Estatu espainiarreko feminismoan gertaturiko al-daketak aztertu dituen liburua idatzi du Silvia Gil-ek, *Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la disper-sión* (2011). Gilek azken urteetan arazo sozialak hau-

temateko edo haiei aurre egiteko zabalduz joan den begirada alternatiboa islatu du testu horretan. 15M mugimenduak ageriago utzi zuen alternatibotasuna.

Berebiziko garrantzia aitortu dio autoreak berritzat hartzen duen baterako parte-hartzeari: lehenago egiten zenaren kontra —dio—, gaur egungo talde batzuetan programak/egitarauak eta helburuak ez leudeke beti guztiz finkaturik, baizik eta Politika elkar topatzeko metodologiatzat hartzen da, ibilian ibiliz eraikitzen, aniztasunetik eta singularitasunetik. Eta baterako parte-hartze horrek guztiontzako espazioen sorrera erraztuko luke, subjektu politiko bakar baten edo egitura bakar baten premia deuseztatuz.

Ez dakit noraino betetzen den hori horrela gure kasuan. Baina, ondorengo orrialdeetan, sumatzen diren eta eraldaketa sakon eta orokor baten iragarle liratekeen zenbait osagai komentatu nahi ditut.

Feminismoaren hirugarren aro baten hasiera bizi-tzen ari al gara?

Baietz esango nuke.

KULTURA POLITIKOA(K) ETA XEDEEN FINKAPENA

Euskal ezkerrean hegemonikoa izan den teoria marxistak eragin osoa izan du gure Politika irakurtzeko eta praktikatzeko moduan.

Ohikoa izan dugun historiaren irakurketa utopiko eta lerrobakarrak kausa nagusi bat behar zuen eta arerio nagusi bat. Horrela, etorkizuneko gizarte utopikoaren izaera zehatz-mehatz finkatu ondoren, horri egokitzen zitzaion estrategia bakar eta bateratua aldeztu aurretik taxuz diseinatzea zen hurrengo zeregin-a.

Euskal feminismoak ere hortik edan du, bestelako ikusmoldeak egon badira ere, hala nola partidu misto-etatik aparte antolatu ziren feminista independenteenak (noizean behin marxismoaren eta feminismo kulturalaren nahasketa bitxia eginez ere). Horiek emakumeen eta gizonen arteko diferentziak azpimarratzen zituzten eta botere-hartzearen kontra teorizatu, besteak beste.

Esan bezala, teoria eta praxi politikoaren berrikuspenak eta kritikak zabalduz joan dira azken hamar-hamabost urteotan, batez ere dogmatismo eta zurrunta-

sunaren aurrean, malgutasuna, esperimentazioa eta autotransformazioaren beharra, eta errealitatearen azterketa irekiagoak eta konplexuagoak proposatuz. Eta hortxe, feministen intzidentzia erabatekoa izan da.

Baina lehengo kultura politikoak badauka oraindik ere pisua feminismoan, jardute politikoaren xedeak finkatzerako orduan, adibidez. Eta sinkretismo interesgarriak sortzen ari dira.

Horrela, euskarazko zirkuluetan indarra hartuz joan den hurbilpen feministan, euskaltasunaren, aber-tzaletasunaren eta feminismoaren planteamendu era-berrituak perspektiba postestrukturalistekin gurutza-tzen ari dira. Konparazio batera, euskal estatu femi-nistaren aldarrikapena eta transfeminismoaren propo-samen haustaileak aise uztartzen dira.

Hain zuzen ere, oraindik orain sakontzeke dagoen (baina gazte euskaldunak liluratuta dituen) estatugin-tza feministaren teoriarekin gertatzen ari dena deiga-rria da. Maila batean bederen, ideia fetitxe bihurtzen ari da, aspektu baikor eta ezkorrekin, nire ustez: alde batetik, iradokitzailea da, baina, bestetik, inoiz erdie-tsiko genukeen balizko estatu horretan, gaur egun di-tugun kezka, eztabaida eta zalantza guzti-guztiak kon-

ponduko omen lirateke, batere argi egon gabe hori lortzeko prozesua zein izango litzatekeen.

Arreta behinena estatuan jarri barik ere, instituzioetan presente (ordezkari politiko baina batez ere profesional gisa) egotearen beharra nahiko orokortua dago feministen artean, geroago jorratuko dudanez. Azken urteak, adibidez, oso oparoak izan dira administrazio publikoaren maila eta arlo askotarako programen eta planen jorraketan.

Alabaina, esango nuke feminista askok jarraitzen dugula pentsatzen gure ahaleginik handiena harreman pertsonal, politiko eta ekonomikoen eraldaketan inbertitu behar dugula, eta horretarako subjektu printzipala herri mugimenduek izan behar dutela.

Horrela bada, xede potolo bat baino maila apalagoko helburu ertainak edo txikiak zehaztea litzateke lehentasuna, arlo eta maila guztietan: harremanak eta elkarbizitza, sindikalgintza eta lan-baldintzak, indarkeria matxista, migratzaileen eta errefuxiatuen eskubiak, hezkuntza, sexualitatea, osasungintza...

Eta, horretarako, nahitaezkoak dira herriz herriko eta tokian tokiko taldeak eta ekintzak bultzatzea eta indartzea. Baina hau ez dator beti bat modu egonkor

batean militatzeko ohituraren jaitsierarekin, hurrengo orrialdeetan ikusiko dugunez.

Azpiatal hau amaitzeko, anarkismoak (korronte legez) euskal feminismoan izan duen presentzia txikiaz ere zertxobait esan nahi nuke. Bada, orain badaude kolektibo bakan batzuk (okupazioaren, gaztetxeen eta mugimendu antidesarrollistaren eremuetan, bereziki), beste feministekin harreman estuan lanean edo ez. Ikusteke dago filosofia horrek zer ibilbide izan dezakeen aurrerantzean.

EZAGUTZA EKOIZTEKO ETA ZIRKULATZEKO METODOLOGIAK

Esan dut dagoeneko, 70eko hamarraldiaren amaieran eta 80koaren hasieran, bizitasun handiko testuinguru politiko batean, emakume-talde ugari sortu zirela, eskubide eta baldintza sozial eta legalen egoera negatiboak bultzatuta eta kaleetan nahiz lantokietan feministek zuten presentzia nabarmenari esker.

Zein izan zen garai hartan ezagutza sortzeko eta zirkularazteko erabili zen metodologia nagusia? Talde

horien funtzionamenduaren oinarria autokontzientziaren filosofia zen. Hau da, teoriaren eta norberaren esperientziaren arteko erlazioa, baina, betiere, feminismoaren ikuspegi oso politizatu eta ekintzaile bati jarraituz.

Autokontzientzia-taldeak Estatu Batuetako feminismo erradikalaren baitan sortu ziren aurreko mendeko 60ko hamarraldiaren amaieran. Kathie Sarachild hasi zen terminologia hori erabiltzen, 1967an, *New York Radical Women* (Malo, 2004:22) deritzenetan eta 70etako feminismoaren motor nagusietako bat izan zen autokontzientziaren jarraitzaile.

Feminista haiek azpimarratu zuten, “pertsonala politikoa da” filosofiaren ildoko jardunbide hark izaera zientifikoa zuen. Hona hemen nola azaltzen duen Sarachildek berak (1978):

Autokontzientzia egia iristeko metodo modura eta ekintzarako eta antolaketarako bitarteko modura hartzen zen, aldi berean. Antolatzaileek egoeraren azterketa egiteko mekanismo bat zen eta, aldi berean, emakume haiek antolatzen ari ziren beste emakumeei (eta haiek ere antolatuko zen beste jende bati) eskaintzen zitzaien mekanismo bat. Era berean, ez zen hartzen gero-

ra beste ekintza bat ekarriko zuen garapen feministaren fase soil modura, baizik eta estrategia feminista globalaren funtsezko osagai modura. (Malo, 2004:23).

Basauriko Emakumeen Taldean parte hartzen hasi nintzenean, 80ak hasi berri, esku artean genituen testuak irakurtzera eta horien gaineko eztabaida egitera mugatzen zen gure prestakuntza, batik bat. Testu horietako asko Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren al-dian aldiko bileretan eztabaidatzen ziren, halaber.

Testu argitaratu edo mekanografiatuak izaten ziren, eta, sarritan, unean-unean lantzen ari ginen eztabaida edo kanpaina zehatzekin lotuak (abortua, kontrazepzioa, dibortzioa, sexualitatea, lana...), baina baziren bestelako argitalpenak ere: saio teorikoak, literatura lanak.... Eta beti lotzen genituen teoriak (askotariko joeretakoak) gure esperientziekin, teoria haiek berresteko, baina baita haiek ezeztatzeko ere, edo gutxienez, haiei ñabardurak egiteko.

Baina, autokontzientzia lantzeaz gainera, oso politizatuta geunden, eta etengabe eztabaidan jarduten genuen orotariko gaiez, ondoren, eztabaida haiek ekintza zehatz bihurtzen saiatzeko. Aldi berean, borroka-moldeez (adibidez, biolentzia edo ez-biolentzia...)

eta antolaketa-moldeez (militantzia bakarra edo bikoitza...) ere eztabaidatzen genuen. Alegia, ideia bikoitz hau genuen abiapuntu: "pertsonala politikoa da" eta "politikoa pertsonala da".

Gainera, teoria eta eztabaida horiek laburtu edo landu egiten ziren (talde-lanean, batik bat), eta hitzaldi edo esku-orrien bidez zabaltzen genituen. Hitzaldiak ere idazten ziren, jardunaldi tematiko nahiz orokorretan aurkezteko; horien artean, bereziki azpimarratzekoak dira Euskal Herriko Jardunaldi Feministak, zeinetan beti parte hartu baitute euskal erakunde feministek antolaketa-lanetan.

Gaur egungoarekin alderatuta handia da jautzia eta handiak ere prestakuntza- eta eztabaida-dinamiketan aurki daitezkeen ezberdintasunak.

Alde batetik, ekoizpen teoriko feminista izugarri ugaritu da, eta zaila da pertsona bat proposamen guztien jakinaren gainean egotea. Gainera, sendotuz joan dira espazio akademikoak eta ikerketakoak. Horrek jakintzaren espezializazio bat ekarri du (eta hierarkizazioa), eta ordezkatu egin du ezagutza ekintzaile talde txikitik pentsatzeko eta sortzeko estrategia, nahiz eta estrategia horrek oraindik hor jarraitzen duen, askoz era ahulago eta ezkutuagoan bada ere.

Hala, bereizi egin dira pentsatzea eta ikertzea, batetik, eta egitea, bestetik, nahiz eta oraindik badiren emakume batzuk arlo guztietan parte hartzen dutenak eta guztietatik elikatzen direnak.

Hau da, aurrera egin dugu maila teorikoan, espezializazioan eta profesionalizazioan, baina galdu egin dugu horizontaltasunari eta ikerketa (arautua nahiz arautu gabea) gure esperientziarekin uztartzeari dagokionez, baita ideiak eta jakintza osotasunean nola sortzen eta artikulatzen diren ikusgarri egiteari dagokionez ere.

Hainbat eztabaidagai atera daitezke hortik, adibidez, autoretzen auziari buruzkoa, edo jakintza kolektiboaren kontzentrazio edo/eta jabetze indibiduala dei genezakeenari buruzkoa. Askotariko espazioetan izan dudana aldibereko esperientziaren bidez, egiaztatu dut, oro har, taldeetan sortutakoa nekezago zabaltzen dela eta, batik bat, zirkuitu subalternoetan barrena zabaltzen dela; gainera, taldeetan ekoizten den ezagutzak aditu deritzenek sortutakoak baino aitortza apalagoa dauka eta/edo iturria aipatu ere egin gabe erabili ohi dira.

Berdinzaleak izan nahi badugu ere, feministei ere eragiten digu gure gizartean nagusi den “adituen kul-

turak". Horren ondorioz, gerta daiteke, adibidez, pertsona bati egozten zaizkiola berez talde jakin batean sortuak diren ideia edo irakurketa batzuk. Ezagutzaren hierarkizazioa taldeen artean ere gerta daiteke, mugimenduaren barruan duten prestigioaren edo "glamourraren" arabera.

Bestalde, ikerketaren kalitatea balioesteko kultura akademiko hegemonikoak —aipu sistema endogamiko eta murriztaile batean oinarritua— eta ezagutza unibertsitatetik kalera noranzko bakarrean "transmititzen" delako ideiak zaildu egiten dute ezagutza hori nola sortzen den eta lanketa teorikoaren eta ekintzailatzaren arteko elkarreragin konplexuak erakusteko mapa bat osatzea.

Nola iristen da gizartera edo beste gune batzuetara edonolako gune feministetan sortutako ezagutza?

Espazioen arteko erlazioak norbanakoen bitartez bideratzen dira nagusiki, eta norbanako horiek espazio batzuetatik beste batzuetara aldatzen dira. Pertsona horiei esker igarotzen da jakintza batetik bestera eta sortzen da jakintza, haiek egiten dituzten jarduera askotarikoen bidez (irakurraldiak, hitzaldiak, ikastaroak, jardunaldiak, elkarrizketa informalak, elkarte bilerak, eztabaidak...). Zirkuitu horietan, ideiak eta edu-

kiak trukatzeko eta proiektatzeko dira sozialki, askotariko euskarrietan (argazkiak, bideoak, testuak...), eta komunikabideen edo gizarte sare feministen nahiz ez-feministen bidez zabaltzen dira, era berean.

Nire ustez, funtsezkoa da zirkuitu horien osagai edo kate maila guztiak azalera ateratzea eta *besteak* kontuan hartzea, jakintza ez partzializatzeko eta guztioi eragiten digun adituen kulturari aurre egiteko, edo, gutxienez, ñabartzeko.

Adibidez, produktu akademikoei dagokienez, kontu handiz jaso beharko genituzke unibertsitateko nahiz unibertsitatetik kanpoko orotariko erreferentziak. Hala ere, jabetzen naiz jakintzak beste era batera administratzeko, ezinbestean eragin beharra dagoela ezagutzaren sisteman (unibertsitate-sisteman).

MILITANTZIA MODUAK, ELKARTEEN AHULTZEA ETA FEMINISMOA KONTSUMOGAI

Militatzeko edo behintzat nork bere burua feminizatatzeko hartzeko molde berriak loratzen ari dira.

Emakumeen taldeek iraganaldian baino agertze-ko/desagertzeko tendentzia gehiago erakusten dute,

eta hori ez da lehen bezala ezkor hartzen. Bestetik, duela hogeitaz gertatzen zenaren aurka, gero eta emakume gehiago daude, feminismoan zerbait egiteko prest bai, baina elkarte zehatz batean egon (gura) gabe.

Adibide bat ematearren, berdintasunerako zenbait udal kontseilutan elkarteetako partaide direnak eta ez direnak batera daude.

Horrez gain, feministok esparru guztietan astero-astero antolaturiko hitzaldi/mintegi/jardunaldi/ekimenetara emakume mordoa hurbiltzen da. Hots, publikoa ziurtatuta dugu, planteamendu feministekin ikasteko eta belarriak goxatzeko prest. Zaila da jakiten emakume horiek gero zer egingo duten jasotakoarekin. Beste era batera esanda, feminismoa kontsumogai bihurtu dugu, eta entzule-ikusle-hartzaile eta aktibisten arteko harremanak asko desorekatu zaizkigu.

Tere Maldonadok, Miren Arangurenek *Berria* egunkarian idatzitako artikulu bati erreferentzia eginez, “Konpromiso kolektiboa: gugandik jarraituz” argitaratu du egunkari berean, militantzia eta aktibismoaren arteko ezberdintasunak hizpide harturik.

Konpromiso kolektiboan dago koska, haren ustez: gero eta indibidualistagoa eta hedonistagoa den gure gizarte honetan.

[“Konpromiso” hitzak] oihartzun batzuk ekartzen ditu gogora, hedonistok oso gustukoak ez ditugunak: betebeharrak, erantzukizunak eta ardurarekin lotutako oihartzunak [...] Baina ez genuke nahasi behar geure jarrera pertsonala eremu desberdinetan (ogitan edo lanean gaudela) militantziarekin. Azken hori trinkoagoa da. Planifikatua. Estrategikoa. Taldean adostua. Militantziak ez du ekartzen bakarrik denbora librearen betetzea, edo norberaren aberastasun pertsonala handiagotzea; feminismoak aldarrikatzen duen politikoa denaren definizioaren biraketa gauzatzea baizik. Komuna eta guztiona den horretan inplikazioa eskatzen du. Ez era puntualean, ez gaur bai baina bihar hondartzara noa (militante hedoniston dilema izaten dena askotan). Berrirori Arangurenari hitzak: “ekintza norberarengandik hasi arren, ekiteak elkarrekiko harreman bat ekarri behar du”. Derrigorrean. Mugimendu feministaren politikaren gakoa elkarlana da. Badaude gauza batzuk bakarrik en común egingo ditugunak. Ez artaldea-

ren moduan, jakina, oso agindupeko txarrak gara feministok: parte-hartze aktibo eta kritikoa bidez soilik. Nigandik hasita, gugandik jarraituz.

Beste aldetik, iritzi-feminismo edo feminismo iritzi-emaile izendatuko nukeenak ere indar handia hartu du euskal gizartean.

Izen-abizen ezagunak dituzten hainbat emakumek sare sozialetan eta komunikabideetan egunean-egunean presentzia nabaria dute. Euskarazko komunikabideetan, *Berrian* eta *Argian*, gehienbat. Feministak publiko bihurtu dira. Eta horrek ikusgarritasuna ematen dio feminismoari.

Baina fenomeno horren bidez, eta ia konturatu gabe, elkarte/jardute-feminismoaren eta iritzi-feminismoaren arteko bereizketa sendotzen ari da, politikarako kapazenak era bikain eta zolian hausnartzeko eta idazteko gaitasuna dutenak bailiran.

Urte askoan, baliorik handiena talde-dinamikei eta talde-aitortzari eman ohi zitzairen, izen propioak, nolabait, bigarren maila batean utziz. Eta ez zen kasualitatea, ondo mamurturiko erabakia baizik. Matxinada zapatistak zabalduriko aurpegi estalien irudia eta filosofia baino lehenago, feministok norbanakoen identitateak ezkutatzeko beharraz eta bertuteez sinetsita

geunden eta gure testuak era kolektiboan idatzi eta sinatzen genituen. Norbanakoen eta taldeen arteko oreka neurtuagoa zen, nahiz eta horrek ez duen esan nahi botere hierarkiarik ez zegoenik edo haiek kudeatzea erraza zenik.

Izen propio horien gain-presentzia mediatikoarena ondo kokatze aldera, bi elementu aipatu beharrean gaude: lehenik eta behin, sare sozialen gaurko garrantzia ukaezina, haien ekarri eta albo-kalteez; bigarrenik, dugun kultura komunikatiboa, non “sinadura” kolektiborik ia-ia ez den existitzen...

Baina ez al guke patxadaz hausnartu behar horren inguruan? Ez al gaude sortzen, ohartu gabe, feministen arteko hierarkia eta elite berriak? Nola konpentzatu, nola neutraliza daiteke hori?

Gizartea aldatu da eta egokitu behar gara. Ados. Baina utzidazue beste galdera bat egiten: zeintzuk dira politika (feminista) baten arrakasta bermatzen duten ahalmenak edo trebetasunak?

Hauexek datozkit niri burura: arazo sozialen teorizazioa eta errealitatearen diagnostiko konplexuak eta txukunak egitea; testuingurua/k ondo ezagutzea eta testuinguru horietara teoriak zedarritzatzea; galdera berriak egitea; aldaketarako eta disidentziarako estra-

tegiak bururatzea eta aurrera eramatea; herri-elkar-teak indartzea eta gizartea astintzea; feministak ez diren emakumeekin nola aritu jakitea; ordezkari politikoekin negoziatzen edo haiek presionatzen asmatzea...

Gai bat teorikoki garatzen dakien bat ez da derri-gorrez gaitasun horien guztien jabe.

Baina aldaketa horren ondoriorik kezkagarriena hauxe da: gertakizun horrek XX. mendearen amaieran gure ezaugarri garrantzitsua izan zen anonimotasun-eta, horrekin batera, kolektibotasun-filosofiari kosk larria egiten diola.

Ezin premiazkoagoa iruditzen zait anonima-to/kolektibotasun eta norbanakotasunaren inguruko eztabaida horretan sartzea, gure unera egokituz. Eta ez bakarrik anonimotasunak kide guztion parekidetasunaren alde joko lukeelako, baizik eta lehenago aipatu dudan gu-guztion ezagutzaren ekoizpena eta zirkulazioa jokoan daudelako, eta politikarako gaitasun guztiak aintzat hartzearen kontra egiten duelako.

Beste gai batera etorriz, alor ezberdinetan eragina izango luketen feministen lobbyak sortzeko gogoia ere hautematen da gure gizartean. Goiz da ikusteko ildo berri horrek (garatuz gero) zer lotura izango lukeen el-

karte-eredu klasikoagoarekin, eta noraino horrek ondorioak izango dituen ala ez feminista guztien arteko koordinazioan eta erabakimenean.

Azpiatal hau bukatzeko, talde ezberdinen arteko aliantzak sortzeko dagoen joera ere azpimarratu nahi dut.

Europa osoan, aldarrikapen bateragarriak dituzten talde feministen eta ez-feministen arteko aliantza interesgarriak indartzen ari dira, arrazismoa, sexismoa edo transfobiaren kontrako ekimenak uztartuz, esate baterako.

Hemen ere, antzerako ekimenak sumatzen hasiak gara. 2014an sortu eta 2015ean amaitu zen *Gora Gasteiz* plataforma horren adibiderik ezagunena izango litzateke.

Euskal Herrian jaio diren eta ez diren emakumeen artean zenbait lekutan ehuntzen ari diren aliantzak arretaz jarraitu behar ditugu eta zaindu, ez baita beti bide erraza. Adibide batzuk: “Brujas y Diversas/Sorgin eta Anitzak” Bilboko talde feminista, edo Ondarroan eta Hernanin jorratzen ari diren emakumeen arteko aliantzak.

ELKARTZEKO GUNE BERRIAK: GRADUONDOKOAK ETA EMAKUMEEN ETXEAK

Lehen esan dudanez, jakintza sortzeko espazio klasikoetatik aparte (modu autonomoan nahiz erakunde politiko edo sindikatueta lan egiten duten talde edo elkarte feministak, koordinakundeak, plataformak, jardunaldiak, etab.), azken aldian, funtsezko hiru eremu iraunkor daude feminismoan, ekintza espezifikoak bideratzeaz gain mota askotako emakumeen (eta gizon batzuen) bilgune gisa dihardutenak, eta aukera ematen dutenak ezagutza eta ekintzailtza uztartzeko, modu asko eta interesgarrietan: (1) indarra hartzen ari diren graduondokoak eta masterrak; (2) Emakumeen Etxeak, non biltzen baitira emakume-taldeak, berdintasun-zerbitzuak eta jabeakuntza-eskolak; eta (3) internet eta sare sozialak, baina ez dut testu honetan horretaz jardungo, ez baitut esparru hori sakon aztertu.

Graduondokoak: dakitenak eta ez dakitenak

Badira urte dezente ikerketa feministen eztanda eragin duten graduondoko ikasketa feministak ditugula Hego Euskal Herriko unibertsitateetan.

EHUri dagokion informazioarekin hasiz eta zenbait datu ematearren, 2001ean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Gaietako Masterra eskaintzen hasi zen, eta 2008an, Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra eta izen bereko Doktorego-Programa. Nafarroako Unibertsitate Publikoari dagokionez, berriz, aitzindariak izan ziren bai genero ikerkuntzan baita irakaskuntzan ere, IPES elkarteak eta Gizarte-Langintza-ren arloko elkarlan luze eta emankor baten ondorioz. Gaur egun badute Generoan Aditua titulua. Deustuko Unibertsitateak, azkenik, Emakumeen Kontrako Indarkerian Esku hartzeko Masterra eskaintzen du 2003tik aurrera.

Ikasgela, bereziki graduondoko ikasketetan, unibertsitatean dagoen mota ezberdinetako feministak topatzeko gune nagusia da. Unibertsitateak aparteko aukera eskaintzen du prestakuntza feminista sustatzeko eta ezagutza feminista ekoizteko eta legitimatzeko. Horrek, eta irtenbide profesionala aurkitzeko aukerak erakarrita, feminista asko iristen ari dira unibertsitatara, gazteak eta ez hain gazteak, ekintzaileak eta ez-ekintzaileak.

Baina gune horretan, abiapuntuko baldintza da “badakitenen” (irakasle eta ikertzaileak, irakasten du-

tenak), eta “ez dakitenen” (ikasleak) arteko bereizketak. Unibertsitate-sistemaren oinarritzko ideia da ikasleak ezagutza jasotzera sartzen direla unibertsitatean, eta, hortaz, ez da beti erraza izaten zirkulazioa kontrako noranzkoan ere gertatzen dela erakustea eta/edo ikasleen jakintza baliatzea.

Gainera, horrek esan nahi du urratu egiten direla mugimendu feministak bereizgarri lituzkeen berdintasunak eta horizontaltasuna. Bereizketa hori sendotzen du, halaber, irakasleen adinaren eta ikasleen adinaren artean izaten den aldeak. Nolanahi ere, ikertu egin beharko da praktikan hori guztia nola orekatzen ari den edo zer ñabardura egiten ari diren.

Dena den, eremu horren alderdi positiboak ere azpimarratu nahi nituzke. Lehenik eta behin, unibertsitateak prestakuntzarako irekitzen duen aukera bikaina, oso beharrezkoa baita gaur egun, kontuan hartuta emakumeek garai batean baino gutxiago parte hartzen dutela elkarteetan eta, izugarritzko informazio pila egonik eskuragarri, ezinbestekoa dela informazio hori antolatzea. Unibertsitate-ikasketek, beraz, aukera ematen dute prestakuntza orokorra lantzeko, baina baita askotariko gai eta ikuspegietan sakontzeko eta espezializatzeke ere. Bigarrenik, prestakuntza hori

arlo profesionalen baliatzeko aukera zabal dezake. Eta hirugarrenik, alderdi positiboa da irakasleek eta ikasleek elkar aberasten dutela, haien esperientzia, ezagutza eta ikerlanaren bidez. Hori guztia kontuan hartuta, unibertsitatea funtsezko gunea da, gaur egun, ezagutza feministaren zirkuituak izendatu ditudan horietan.

Emakumeen Etxeak: aukera berrien sorrera

Etxe hauek Mugimendu Feministak betidanik izan duen aldarrikapen nagusiari erantzuten diote, espazio propioak eraikitzeari. Baina badira ere tokian tokiko emakumeen elkarteek ordura arte egindako lanaren aitortzarako lekuak.

Aurten eratu den Emakumeen Etxeen Sarearen barne-dokumentu batek halaxe dio:

Emakumeen Etxeek, berdintasunaren bidean aurrera egiteko indarrak, proiektuak, borrokak eta ideiak batu nahi dituzte. Emakume elkarte eta talde feministak elkartzeko espazioa, emakumeentzako erreferentziazko gunea, baita bide horretan lagundu nahi duten ororentzat ere, espazio irekiak dira. Emakumeen etxeak emakumeentzako erreferentziazko espazioak dira: ema-

kumeen jabekuntza sustatzea helburua dutenak, baita berdintasunaren aldeko tokiko politika publikoen erreferentzia direnak. Ondorioz, Emakumeen Etxeak tokiko politika feministak indartze-ra datoz.

Bertan, ekimen eta ekintza politiko oso ezberdinak garatzen dira: bilerak, koordinazioak, kanpainak, ikastaroak, mintegiak, erakusketak, antzerki edo musika-saioak... bestelako erakundeetan eskaintzen ez dituzten zerbitzuekin batera: genero- eta sexu-heziketa, eskubideen gainerako informazioa, aholkularitza juridikoa, babes soziala eta psikologikoa, besteak beste.

Baina antolatzen diren jarduera horien guztien artean, bereziki aipatzekoak dira jabekuntza- edo jabetze-eskoletan barnebiltzen direnak.

Euskal Herriko lehen jabekuntza-eskolak Bizkaian sortu ziren 2003an, zenbait udaletan berdintasun arloan lanean ari diren eta mugimendu feministarekin zuzeneko lotura duten berdintasun-teknikarien ekime-
nez. Eskola horiek modu koordinatuan dihardute; gogoeta, prestakuntza eta topaketarako guneak dira; eta haiek bideratutako jardueretan ehunka emakumek parte hartzen dute urtean. Hain zuzen ere, eskolen helburua da emakumeen partaidetza politiko eta so-

ziala sustatzea, politika publikoetan eragiteko modua izan dezaten.

Prestakuntza-programak oso zabalak dira, eta askotariko alderdiak lantzen dituzte, hala nola, jarduera espezifikoki feministak (prestakuntza teorikoa, irakurraldiak, eztabaidak...), emakumeen sektore batzuetan eragin berezia duten arazoei buruzko tailerrak (gizarte-trebetasunak, informatika, osasun-arazoak...) nahiz kultura-jarduerak (literatura, artea, antzerkia, zinema....).

Eskola horiek ibilbide laburra egin dute oraindik eta ez da egin horiei buruzko sakoneko ebaluaziorik. Hortaz, ez dakigu zenbaterainoko inpaktu erreala duten "ikasleen" bizitzan edo emakumeen egoera orokorrean. Baina iruditzen zait funtsezko guneak izan direla prestakuntza feministan jauzi kualitatiboa egiteko.

Emakumeen Etxeetara itzuliz, bertan, ezberdinak diren emakumeen arteko harremanak askoz ere zabalagoak eta askotarikoagoak dira (edo izan daitezke) unibertsitatean edo bestelako guneetan baino, eta orobat badute horizontalagoak izateko joera, egitura bera horizontalagoa den heinean. Etxea esparru ofizialaz kanpoko gune alternatibo bat izateak ere erraz-

tu egiten du horizontaltasun hori. Halaz ere, gerta liteke, noski, balizko horizontaltasun horren azpian bote-re-erlazioak ezkutatzea.

Ahulguneen artean, halaber, bertan sortzen eta gertatzen den orok askozaz proiektzio mugatuagoa duela esango nuke, askozaz eragin gutxiago ezagutzaren sisteman.

Izaera konplexu eta askotarikoa eta egitura horizontalago hau abagune paregabea izan daiteke gaur egungo feminismoak dituen erronkak bideratzeko. Horrela konpentsatu baitaitezke, nire iritziz, beste toki askotan ditugun arriskuak, desorekak eta hierarkiak.

Beraz, Emakumeen Etxeak badira erronka eta aukera aldi berean.

ELKARTEEN DINAMIKAK, METODOLOGIAK, EKINTZAK

Gaur, edozein elkartetan, helburuak eta agendak modu malguagoan zehazteko joera dagoela esan dut lehenago. Baina baieztapen horrek zenbait ñabardura behar ditu.

Urrun gelditzen dira denborak non ohikoa zen elkarte gehienok koordinatu eta ikasturte osorako aldarrikapenak, xedeak eta leloak finkatzea. Azken bi hamarkadotan izan ditugu ahalegin jarraitukoa eskatu diguten aldarrikapen komunak (zaintza-sistema publikoa edo abortuaren ingurukoak, esate baterako). Baina, oro har eta baterako ekintza mailan behintzat, ez dago horrenbeste aurreikuspenik.

Bestalde, diru-laguntza kultura batean bizi gara, eta elkarteek askoz lehenago pentsatu behar dute zer antolatu nahi duten epe ertainean. Gainera, instituzioek zehazten dute zer eta zertarako eska dezakegun finantzazioa, helburu nagusiak eta printzipio ideologiko zein kontzeptualak xedatuz, eta ez dugu ondo aztertuta zenbaterainoko eragina duen horrek mugimendu autonomoan.

Ekintza zehatzei dagokienez, irudipena dugu sormen maila altuagoa dugula orain lehen baino, ekintza aberatsagoak eta askotarikoagoak burutzen ditugula. Baina ideia horrek noraino du hiztegi-berritzetik eta memoria faltatik? Esate baterako, une honetan *performance* hitza hitzetik hortzera darabilgun ekintza mota hori arrunta zen 70/80/90eko hamarkadetan ere, sormenak gaindi egiten zigunean.

Metodologia parte-hartzaileen hedapena ere aipatu dut.

Ohikoa bihurtu da. Jardunaldi edo topaketa batean gaude eta, une batean, eztabaida dinamizatze aldera, metodologia horiek aplikatzen hasten gara, dinamika hori gidatzeko iaioa den pertsona edo kolektibo baten esanetara jarritz. Edo enpresa bat ere izan daiteke.

Aldez aurretik erabat finkatuta egon ohi diren prozedura horietan lehentasun osoa ematen zaie urrats zehatzak jarraitzeari (askotan, ariketa edo jolas modura planteatuta) eta talde txikitan biltzeari: bat-bateko-tasunari toki gutxi, dena ondo pentsatuta eta diseinatuta hasieratik amaieraraino.

Bada, arlo honetan ere badago, nire ustez, gogoe-tarako mamia.

Metodologiak metodologia, uste dut baiezta daitekeela modu horizontalean eztabaidatzeko kultura pobretzen ari dela, zientoka emakume barne hartzen ziztuzten asanbladetan antolatzeari utzi genionetik. Konstatazio bat baino ez da. Eta txirotze hori ez da konpentsatzen ari ez metodologia parte-hartzaileen bidez ezta sare sozialen bidez ere.

Egizue kontu iraganean maiztasun lotu baten barruan egiten zirela eztabaidak, eta gai berari buruz

saio bat baino gehiago antolatzen zirela, herri eta auzoetako talde txikietatik Asanbladara eta alderantzizko joan-etorri askorekin, gaiaren pisua eta erabakien garrantziaren arabera.

Egia da partaide asko dituen Bilgune Feminista bezalako elkarte handietan, lehengo eztabaida-kultura hori mantentzeko parada dutela: emakume asko gai beraren inguruan behin baino gehiagotan aritzeko, gaietan sakontzeko aukera... Baina, oro har, ohitura hori galdu da eta sasi-eztabaidak egiten ditugu jardunaldi edo ekitaldietan gehienbat. Hots, itzuli askotako partaidetzan, sakoneko eztabaidan eta, larriagoa oraindik, guztion arteko erabakimenean galerak nabaritzen dira hein handi batean.

Ez nuke gura iraganaren idealizazioan jaustea, baina demokrazia kontzeptuaren adiera ezberdinez asko hitz egin arren, beldur naiz ez ote garen demokrazia metodologia/teknika huts bihurtzen ari, benetako partaidetza bermatu gabe.

INSTITUZIONALIZAZIOA ETA PROFESIONALIZAZIOA

Orain arte aipatu ditudan gai guztietatik harago, badago denborarekin haziz joan den beste joera bat: feminismoaren espezializazioa, profesionalizazioa eta instituzionalizazioa. Eta maila batean, burokratizazioa.

Propio sorturiko lanpostuetan dauden profesionalek kopurua eta enplegu feminista zabaldu da. Espezializazioari eta proposamenen sakontasunari dago-kienez ere gaur egungo oparotasuna azpimarragarria da.

Feministak (ia) nonahi daude: berdintasun-teknikari, lankidetzatza-teknikari, ikertzaile, irakasle, hezitzaile, mediku, abokatu, psikologo, mintegi eta eskoletako dinamizatzaile... zentro publiko, pribatu zein diruz lagundurikoa, erakunde orokor edo berdintasun arlokoetan, gobernuz kanpoko erakundeetan, kooperatibetan, enpresa txikietan...

Feminismoaren hedapen profesional edo instituzional horrek mugimenduaren aberastasunaren eta gizartearen berdintasunaren alde egiten du, ezinbestekotzat jo dugu eta bultzatzen ari gara, ekimen feminis-

tetan konprometitzen diren kontratatuen egoera, sarri, prekariora bada ere.

Non leudeke, bada, arriskuak?

Arriskuetaiko batzuk aipatzearren esango nuke, arestian adierazi bezala, espezializazioak badakarrela bere baitan jakinduriaren hierarkizazioaren eraikuntza bat: nortzuek dakiten eta nortzuek ez ongi zehaztuta gelditzen da, errealitatea horrelakoa izan ala ez.

Bigarren arrisku bat, soldata baten truke militatze-ko prest daudenen eta ezer jaso gabe jarduten dutenen oreka deskonpentsatzen ari dela. Garai batean non enplegu feministarik ez zegoen edo gutxi zegoen, mugimendua musu-trukeko ekintzaileek osatzen zuten. Gaur egun ez da horrela eta elkarte autonomo-etan ere badaude liberatuak.

Horrekin loturik, feminismoaren oenegizazioa gertatu da (Zabala, 2008:34-35), herrialde edo testuinguru pobreetako emakumeekin dugun lotura hierarkizatuz, besteak beste.

Beste arrisku bat, langileen eta aktibisten arteko erritmo, jardueren eta aukeren balizko talka da, azkenean, mugimenduen ahultzea dakarrena, elkarte feministak “traba moduan” ikusita izateraino.

Profesionalak planak eta proiektuak diseinatzeko daude kontratatuta eta horretarako egokiro prestatuta. Lehen esan dudanez, Euskal Herri mailan dugun programen eta planen jorraketa ezin oparoagoa eta miresgarriagoa da. Ederto.

Baina, bat, plan horien diseinuan eta garapenean dena ez da teknika kontrolatzea, eta profesional/liberatuen eta beste eragileen arteko elkarlana eta atzera-elikadura funtsezkoak dira. Eta horretarako malgutasun osoa behar da alde guztietatik.

Bi, proiektuek ez dute arrakastarik izango elkarreetan edo herri mailan dagoen jendearekin kontatuezean. Proiektu bat idatzita egotea ez baita, berez, politika feminista baterako berme bakarra: gizarte eragileen parte-hartzea eta borondate politiko zabala ezinbestekoak dira nahiz eta munduko planik onena diseinatu.

Beraz, erritmoak eta dinamikak harmonizatu behar harko lirake. Gainera, "paperak" dena onartzen badu ere, politika baten arrakastaren gakoa, nire ustez, osagai ezberdinen arteko oreka litzateke: plan teoriko bera, politika aplikatzen deneko testuingurua ondo ezagutzea, errealitatea aldatzeko koiuntura sozial aproposa egotea, eta prozesu horretan parte

hartu behar duten eragileen mobilizazioa lortzea. Oreak hori gertatu ezean paperontzira edo tiraderara doa plana.

Eta, hiru, instituzio batean inplikatura egoteak badakar ordezkari politikoek eta egiturak berak ezartzen dizkiguten mugei nahitaez doitzeko beharra. Aldi berean, boterea ematen dizu kaleko jendearen aurrean, botere gehiegi, agian. Eta horrek guztiak nork bere pentsamendu kritikoa pobretu dezake. Hori konpentsatzeko bide ezberdinak saia daitezke baina, nire iritziz, bat ezinbestekoa “kaleko” mugimenduarekin harreman estua mantentzea da.

Beste mota bateko arriskua lanpostuaren beraren iraupenarekin lotua legoke: noiz edo noiz enplegua edo lanpostua bera mantentzea helburu nagusia bihur daiteke eta ez hainbeste egindako lana baloratzea eta horren arabera beharrak (eta lanpostuak) zehaztea.

Nola konpentsatu arrisku horiek guztiak?

Noraino instituzioekin/instituzioetarako lan-egiteak lekua eta indarra kentzen dizkie herri-mugimenduei?

Horra erantzun barik ditugun galdera potoloak.

NORAINO DIRA BATERAGARRIAK ERREFORMA ETA HAUSTURA?

Aurreko gaiari buelta bat gehiago emanaz, 2017an baieztatu daiteke politika feministan eta politika orokorrean ere, erreformak eta hausturak bateragarriak direla pentsatzera helduak garela, salbuespenak salbuespen. Praktikan behintzat horrela jarduten dugu, bateragarriak bailiran.

Baina hainbat erakundetan (udal, foru aldundi edo gobernuetan) egin duguna edo egiten ari garena ez dugu inondik inora sakonean ebaluatu.

Eta ez nau kezkatzen lanpostu edo erakunde propioak eratzeak, edo enfasia lege-aldaketetan, berdintasunerako planetan edo neurri administratibo-juridikoetan jartzeak. Kezkatzen nauena da noraino egitura horrek, askotan gu jabetu barik, elkarte feministen irakurketa/jarduera propioei gain hartzeko edota neutralizatzeko izan dezakeen ahalmena. Estatuaren egiturek mugimendu bat koaptatzeko duten indarra itzelekoa da-eta. Beraz, arrisku horien kontrako neurriak eta estrategiak ere asmatu eta indarrean jarri beharko genituzke.

Zertan gelditu dira azken urteetan egindako plan eta protokolo asko?

Planen bat aurrera ez doanean, hauteskundeak galtzeari edota gure kontra ari den partiduari egozten diegu, eta plan berri batzuk diseinatzeari ekiten diogu egindakoaren benetako azterketa sakona eta patxadatsua egin barik. Eta ebaluaketa egotekotan, horren emaitzak ez dira gizartearekin partekatzen. Eta hau ere beste arazo bat da.

Aldaketa sozialak fenomeno konplexuak dira, oso. Beste gauza askoren artean, motelak. Eta ez dira beti emakumeen alde gertatzen. Bertan parte hartzen duten faktoreak eta prozesuak askotarikoak dira, gainera. Gure programa, egitasmo eta eginkizunetan buru-belarri jarraitu behar dugu baina horrekin batera, nola edo hala, egiten ari garena erlatibizatuz.

EUSKARA ETA KULTURGINTZAREN GOTORLEKUA

Antzematen diren transformazioen errepaso honekin bukatzeko, indartsu gailentzen ari den beste fenomeno bat komentatu nahi nuke. Lehenago hitz egin

dut (euskarazko) iritzi-feminismoaren sorreraz, eta orain ideia hori osatu nahi dut.

Azken denboraldian, teoria/ikerketa/saiakera/iritzi feminista geroz eta gehiago lantzen ari da euskaraz. Iraganeko gaztelera/euskara desoreka bistakoa iraultzeko atarian geundeke, hein batean behintzat.

Lan dotorea egiten ari dira diziplina ezberdinetan hainbat ikertalde, hala nola, antropologian, soziologian, zientzia politikoetan... Eta euskarazko ekoizpen zientifikoa modu esponentzialean hazten ari da.

Kulturgintzako zenbait arlotako produkzioa ere deigarria da, eta horren gailurrean bertsolaritzan aspaldi hasi zuten kanporako eta barrurako prozesu kolektiboa. Nabarmentzekoa da euskalgintzaren eta feminismoaren artean mantentzen diren sinergiak eta berrelikadurak, non ezagunak diren Idurre Eskisabelek eta Lorea Agirrek planteaturiko ideiak.

Egunean-egunean, dozenaka emakumek artikulak, liburuak, dokumentalak edo testuak argitaratzen dituzte prentsan, sare sozialetan edo ezein argitaletxe edo ekoiztetxetan; edo parte hartzen dute irratsaio edo telebistako saioetan.

Baditugu berariazko argitaletxe/bilduma feministak: Edo!, Lisipe, Eskafandra.

Euskaraz.

Ez ditut profilak gogoko baina herritar aurrerakoia-
ren subjektua ezaugarritu beharko banu, orain eta
hemen, feminista eta euskalduna izateko puntu asko
dituen pertsona dela esango nuke.

Gazteleratik edo frantsesetik itzultzetik euskaraz
sortzera eta idaztera pasatuak gara. Egiten ditugun
jardunaldi feministetan ere euskarak gero eta presen-
tzia handiagoa dauka, Gipuzkoan bereziki.

Ez hori bakarrik. Mundu intelektual eta artistikoan
zenbait feminista batu eta agerraldi kolektiboak egi-
ten ari dira, “agerraldi” hitzaren esanahi bikoitzean:
presentzia eta inpaktua. Eta horrek elite feminista be-
rrien emergentzia ekarri du, horren efektu sinbolikoaz
oraindik gutxi dakigula.

Bejondeigula.

Baina kontuz triunfalismoekin. Zuhur joka deza-
gun.

Gertakizun horien guztien eraginari inolako ga-
rrantzirik kendu gabe, esango nuke ispilatze efektu
bat ere bizitzen ari garela.

Euskaldun guztiak ez dira feministak, ezta euska-
razko komunikabideetako irakurle guztiak ere.

Komunikabideei dagokienez desoreka handi bat sortzen ari da gainera: euskarazkoetan gizarte osoa erretratatzen da, nola edo hala; baina badago mundu oso bat, emakumeei dagokiena eta ez dagokiena, gaztelerazko komunikabide boteretsuetan apenas sartzen dena. Ainhoa Etxaideren esaldi bat parafraseatuz esan daiteke feministok apurtu ditugula euskarazko komunikabideen eta argitaletxeetako josturak. Eta harro gaude. Baina ez gaztelerazkoak.

Bizitza eta politika gure txikitik baloratzea, neur-tzea, asmatzea... mundua gure neurrikoa dela pentsa-tzera garamatzan joerak baditu ondorio baikorrak baina ezkorrak ere bai: irakurketak, taktikak edo dena delakoak egoki ez planteatzearena. Aztergaia koadro-tik kanpo gelditzeak baditu bere arriskuak.

Feminismoa, gero eta gehiago, euskaraz mintzo da, bai. Baina erronka handi bat dugu kulturari, hiz-kuntzari eta euskalgintzari begira, baita eskubide so-zial eta ekonomikoei dagokienez ere. Erronka eta au-ker a berriro.

Aukera, beste herri mugimenduekin aliantzak egi-teko, euskararen mugimenduarekin egiten ari gare-nez. Aukera, momentuz euskaraz hitz egiten ez dute-nekin edo jatorria, adina, bizilekua edo dena delakoa-

gatik inoiz egingo ez dutenekin nola jardun pentsatze-ko. Konbentzituta bainago horretan ere eredu izan gaitzezkeela.

Baina aukerarik zailena, nire ustez, Euskal Herrian, oro har eta emakumeen artean, dauden ezberdintasun sozio-ekonomikoen gaiari dagokio, horretan nola egin ez baita esan-eta-egin. Eta guaiak izatearen tentazioa hortxe dago beti.

Angela Davis-en etorrerak (eta Eskafandra eta Katakarak-en eskutik haren obra itzultzeak) genero, klase eta arrazaren arteko harremanen errealitatea jarri du berriro ere mahai gainean, feminismoaren gai eta kezka zaharra.

Mota horretako teoria konplexuen egokitzapenak egiteko ahaleginean bagaude ere, 80ko hamarkadan egiten ziren irakurketetatik harago joan beharko dugu, hiru faktore horiei bestelako batzuk ere gehituz: etnia/kultura/hizkuntza, sexualitatea, adina, nazionalitatea, ezintasun fisiko edo psikologikoa, erlijioa...

Eta nire ustez, gaur gaurkoz, erabat urrun gaude azpiratze faktore guzti-guztiak bai teorian bai praktikan elkarlotzetik. Klase-ezberdintasunak, adibidez, alde batera uztea erabat ohikoa da.

Elkarlotze orokor horrek (interseksionaliteak, nahi baduzue, gaurko hitz bat erabilita) autokritika zorrotza eskatzen du: nondik nago hitz egiten, norentzat, noren izenean, noren alde...? Eta zailena erantzuteko: zeintzuk dira nire pribilegioak?

Gogoratu dezagun Michel Foucaultek (2003) proposatu zuen boterearen ideia zirkularra eta botere-posizio aldakorren planteamendua:

Boterea zirkulatzen duen zerbait legeaz aztertutik behar da, katean bakarrik funtzionatzen duen zerbait. Ez dago inon, hemen edo han, ez dago inoiz batzuen eskutik, ez da inoiz aberastasun edo ondasun legeaz jabetzen. Botereak funtzionatu egiten du. Boterea sarean gauzatzen da. (2003:34).

Bada, proposamen horretaz baliaturik, esan behar da hemen eta orain feministen artean sortzen ari diren hierarkia berriek euskararen alde egiten dutela. Eta hori egoera ezezagun bezain akuilagarria egiten zait niri behintzat.

Ezberdintze-faktore horiek guztiak barne hartzen dituen itun feminista berri baten beharra ikusten dut nik.

GATAZKA ETA GATAZKAK: ITUN FEMINISTA BERRITZEKO UNEA IRITSI DA

Bakea eta bizikidetzak helburu dituen prozesuan gaude murgilduta Euskal Herrian.

Emakumeak aspaldi daude eremu horretan buru-belarri, elkarte eta jarduera askotarikoetan konprometiturik, betiere ideologia ezberdinetatik. Baina gaur egunera arte emakumeek utzi ohi zaien papera, oro har, bitartekari hutsak izatearena da.

Euskal Gatazkak arreta mediatiko eta soziopolitiko behinena erakarri badu denbora luzez, feminista askok uste dugu horrek bestelako bereizkeria eta indarkeria egoerak (emakumeena, kasu) lausotu dituela. Eta joera hori berrikusteko, aztertze eta aldatzeko momentu aproposa gaudela.

Esan genezake emakumeek era kolektiboan proposatu dituzten ekimenen artean, lehena Ahotsak izan zela, 2006an EAEko eta Nafarroako legebiltzarkide emakumeek (partidu guztietakoak, PP eta UPNkoak izan ezik) bultzatu zutena. Geroago zenbait talde fe-

ministra ere batu zitzaizkien. Indarkeriaren erabilera alde batera utzi eta Gatazkaren konponketa eta guztion arteko elkarrizketa aldarrikatu zuten. Hainbat agerraldi eta ekitaldi publiko egin zituzten, jendetsue-na Bilboko Euskalduna Jauregian.

Bilgune Feminista ere aspaldi ari da gai horren inguruan ekiten. Kanpora begira proposaturiko ekimenen artean interesgarriena 2016an, Iruñean eta Bilbon, “Hau ez da gure bakea. EHko gatazka politikoen irakurketa feministak” lelopean antolatutako Eskola Feminista litzateke.

Ikuspegi ideologiko ezberdinetako emakumeez osaturiko Emagune, edota gizartearekiko harremanak sendotzeko EHUK sustatzen duen EhuGune barruan dagoen bi urteko ekimena ere hortxe kokatu beharko genituzke. Aldez aurretik egon diren ekimenen ondorengo sentitzen garen Emagunekook jendaurrean dokumentu bat aurkeztu genuen pasa den irailean gure ideia nagusiekin.

Beste aldetik, duela gutxi, berrogeita hamazazpi emakume preso ohiek manifestu bat plazaratu dute beren esperientzia mahaigaineratuz eta bizi (izan) duten egoera salatuz.

Ordea, feminista batzuek uste dute Euskal Gatazka egon izanak preseski ahalbidetu gaituela euskaldunok bestelako arazo sozialez hausnartzeko eta horien kontra ekiteko. Eta zer hausnartua ematen du irakurketa horrek.

Eta beste batzuek ez dute ikusten gai horren inguruan ezer berezirik egiteko beharrik. Eta badaude Euskal Gatazka dagoenik zuzenean ukatzen dutenak ere.

Ikerketa arloan ere ugalduz doaz Euskal Herrian motibazio politikoa duen indarkeriaren gaia genero ikuspegitik aztertzen ari diren lanak. Bi aipatzearren: Oihana Etxebarrietak eta Zuriñe Rodriguezek 2016an argitaraturiko *Borroka armatua eta kartzelak* liburua, Jule Goikoetxearen hitzaurrearekin eta Irantzu Mendiaren epilogoarekin; eta Argituz - Giza Eskubideen Aldeko Elkartek plazaratu duen *Violencia de motivación política contra las mujeres. 1960-2014* (Gaztelumendi, Naredo et al., 2016) txostena. Eta badaude beste zenbait ikerketa eta doktore-tesi martxan.

UEU-Udako Euskal Unibertsitatean, 2015. eta 2016. urteetan antolaturiko uda-ikastaroak ere azpimarragarriak dira: Oihana Etxebarrietak, Zuriñe Rodriguezek eta Arantza Santesteban-ek koordinatu zuten *Euskal Herriko gatazkaren irakurketa etorkizuneko*

bake feministaren bidean, eta Oihana Barrios-ek eta Oier Azkarragak koordinaturiko Kartzela eta Euskal Gatazka birpentsatzen. Subjektu feminista baten norabidean, hurrenez hurren.

Lehenago esan dut: hemengo feministak oso tre-beak izan gara elkarrekin egoteko abaguneak sortzen. Baina egiari zor, hori posible izan da “euskal gatazkari” zegozkion gaiak alde batera utzi ditugun neurrian, salbuespenak salbuespen.

Emagune ekimenean parte hartu duten bakea eta bizikidetzaren arloko elkarteetako zenbait emakumek, berriz, kontrako egoera kontatzen dute: nahiz eta elkarte horietan emakumezkoak gehiengoa izan, ez ohi da beren dinamiketan genero-kontraesanekin loturiko eztabaidarik piztu, inongo ezberdintasunik egongo ez bailitzan, ez eragileen artean ezta jardueren artean ere.

Aro politiko berrian gaude eta itun feminista berri-tzeko unea ere heldu zaigula esango nuke. Eta berri-tzen ari gara.

Emagune ekimena edota 2016ko apirilaren 9an, Gasteizen, eginiko “11 eraso, 12 erantzun. Feministok Prest!” manifestazio erraldoia, non Euskal Herriko mugimendu osoa bildu zen emakumeen kontrako mota

guztietako indarkeriak salatzeke (motibazio politikokoak barne), bi adibide dira.

XXI. menderako Itun Feministak baldintza bat bete beharko luke ezinbestean: mota guztietako eskubide urraketak benetan integratzea, harreman eta ezberdintasun ekonomiko eta sozialei dagozkien gaiak ere erdigunean txertatuta.

Horra hor hordagoa.

ZENBAIT IZARGUNEREN ARGIAK ETA ILUNAK

BOTERE POLITIKOA, AHALDUNTZEA ETA LIDERGO KOLEKTIBOAK

R.W. Connell-ek (1987) idatzi du, boterea eta genero ezberdintasunen arteko harremanak sakontzera-koan, gizarte egituren antolaketarekin zerikusi zuzena duten hainbat gai azter daitezkeela: autoritate, kontrol eta hertsadura sistemak, emakumeak baztertzen dituzten estatu-hierarkiak, erakunde mailan emakumeen kontra erabiltzen den indarkeria, edota botere-dunek autoritatea eta zilegitasuna bereganatzeko baliatzen dituzten bitarteak, besteak beste.

Azpimarratu du ere botere-hierarkiak egoteak ez duela esan gura emakumeek ez dutenik botererik edo autoritaterik ezein arlo edo inguruabarretan, edo gizonen boterea ahula edo lausoa izan ez daitekeenik.

Feminismoaren baitan bi joera nagusitu direla esango nuke: edo emakumeen botere eza azpimarratu da, goi-mailako ardura politiko edo ekonomikoen egoera tamalgarria eta instituzioetan emakumeak/feministak sartzearen beharra nabarmenduz; edo instituzioak eta botere-egiturak errotik kritikatu

dira, botere-hartzeari uko eginez. Gaur egun lehenengo gailentzen dela esango nuke.

Baina, oro har, badugu ohitura emakumeek boterearekin dugun harremana sinplifikatzeko, gizarte edo eremuen artean dauden ezberdintasunak beren neurrian hartu gabe eta zenbait aspektu nahastuz.

Justa Monterok (2016) Espainian gai mediatiko bihurtu den balizko politikaren feminizazioaz berriki idatzi duena ekarri nahi dut hona:

Politika feminizatzeak gauza asko hartzen ditu berarekin, eremu publikoan emakumeen presentzia areagotzetik hasita, etika eta politikaren fundamentazioa, edo politikaren beraren edukiak zehazteraino. Beraz, esanahi bat baino gehiagoko kontzeptua da, anbibalentea, interpretazio askotarikoak onartzen dituena bai feminizazioari dagokionez baita politikari dagokionez ere.

Luisa Posadak ere gai honetan erne egoteko deia egin du, gogoraraziz “politikaren arloa itun patriarkalen leku gisa eratu dela emakumeen elisioa eginez”:

Politikaren “feminizazioaz” hitz egitea “balio maskulinoak” emakumezkoei atxikiriko besteekin ordezkatzeari litzateke; emakumezkoen eta gi-

zonezkoen balioen arteko bereizketa garbia da-
goela asumituz. [...]

*Baina, emakumeentzat beti ona al da —gal-
detzen dio bere buruari— gizateria hobe baten-
tzat berariazkoagoak eta desiragarriagoak lirate-
keen balioen katalogo baten ikono bihurtzea?
Eta, nondik atera katalogo hori ez bada patriarka-
tuak femeninotzat hartu duenetik? [...]*

*“Politikaren feminizazioaren” aldarrian,
beraz, diskurtso berri baten aurrean gaude zeina,
beren bizi-baldintzek eraginda dauden emakume
singular eta zehatzetatik abstrakzioa eginez, fe-
meninotasunaren diskurtso araugile gisa aurkez-
ten baita. Femeninoa zaintzari, elkartasunari, ko-
munitateari lotuta eta politika egiteko era berri
baten osagai eratzaile gisa aldarrikatuta.*

Atal honetan, goi-mailako zein maila apalagoko
botere- edo ardura-lekuetan dauden emakumeen eta
feministen egoera zehatza aztertzearen ildoan defen-
datu nahi dut, emakumeon lidergo eta botere-eskar-
mentuarekin zerikusia duten zenbait eztabaida-gune
seinalatze aldera.

Horretarako, Teresa del Vallek eta bere kolabora-
tzaileek, *Modelos emergentes en los sistemas y rela-*

ciones de género (2002) liburuan, jarraituriko premisa bikoitz beretik abiatuko naiz:

[...] gizabanakoak, berezko estrategiak eta helburuak dituzten gizarte-aktoretzat hartzea, zeintzuek autonomoak izateko eta bitarteko sozialak kontrolatzeko aukeraren bat baduten; bigarrena, botere egitura jarraitutasun gisara ikus-tea, non autonomia, boterea eta ez-boterea kokatu behar diren modu bereizian. (2002:16).

Baina, hori baino lehen, Ainhoa Etxaidek, 2016ko martxoan, Gasteizen antolaturiko mahai-inguruan aipaturikoa gogorarazi nahiko nuke, gauden testuingurua zirriborratzeko baliagarria baita.

Etxaidek zioen botere-harremanez hausnartzeko gure testuinguruan izandako aldaketetatik hasi behar dugula. Horrela, gertatzen ari den “politikaren pribatizazioa” azpimarratzen zuen, erabakiak beste nonbait hartzen ari baitira, boterea boteretzat hartu izan ohi denetik (erakunde politikoetatik) gero eta urrunago kokatuta.

Marko horretan, emakumeak botere-postuetara heltzeko estrategiak zeintzuk izan beharko liratekeen pentsatzea errotik korapilatu zaigu. Izan ere, Euskal

Herriko egoera izan beharko lukeenetik urruti dago, ikuskatzen dugun arloa edo erakundea edozein dela: unibertsitatea, enpresa, partiduak, sindikatuak, Legebiltzarra, foru aldundiak...

Argazki gordin horren baitan emakumeok eta feministok lidergoei nola aurre egiten diegun komentatu nahi nuke orrialdeotan. Baina, hori baino lehenago, boterearen gaur egungo hurbilpen feministaren zutabe funtsezkoa den ahalduntze terminoari buruz ere zertxobait esan gura nuke.

AHALDUNTZE TERMINOAREN ELASTIKOTASUN KEZKAGARRIA

2015eko azarotik badugu “Emakumeen Ahalduntzerako Eskolak Euskal Autonomia Erkidegoko Udalerrietan” izeneko sarrera wikipedian, non eskola hauen historia, ezaugarriak eta webguneak biltzen diren.

Arestian esan bezala, lehen eskola 2003. urtean sortu zen Basaurin, emakumeen formakuntza eta parte-hartze soziopolitikoa sustatzeko helburuarekin. Horrela inauguratu zen urtero zientoka parte-hartzaile

erakartzen dituen, eta udaletatik harago ere hedatu den formula berri zein arrakastatsu hau.

Ahalduntze kontzeptua Latinoamerikako emakumei hartu genien XXI. mende hasieran, feminismoa zabaltzeko jarduteen eraberritze beharraz kezka zabaldua zegoen garaian, non (bakoitzari berea) begirik ezin zorrotzagoa ohi duten Bizkaiko zenbait berdintasun-teknikari feministak proposamena luzatu eta bete-betean asmatu zuten.

Urteen poderioz hitz izarra bihurtu da feminismoan eta feminismotik kanpo ere bai. Guztiok izango dugu gogoan, esate baterako, 19. Korrikaren leloa, euskarahalduntzeko gonbitea luzatuz. Baina herri mugimenduetatik at ere (osasungintza, hezkuntza, enpresa...) topa daitezke emakumeak, langileak edo gazteak ahalduntzeko deiak/asmoak, nazioarte mailan diren bankuek, korporazioek eta erakundeek ere bere egiteraino. Andrea Cornwall (2016) garapenean eta generoan adituak zabalpen horren inguruko kezka agertu du esanez hitz hau dela modan daudenen artean elastikoenetarikoa. Egia esan, zer pentsatua eman beharko liguke ez feminismoarekin ezta eraldaketa sozialarekin ere bat ez datozen erakunde edo sektoreek horren samur erabiltzeak.

Feminista latinoamerikarrak eta afrikarrak, munduan diren botere ezberdintasunen gaineko jabetzetik abiatu ziren termino hau berregokitu zutenean, eta gogoeta eta kontzientzia, antolatze beharra, eta nork bere boterea handitzea bateratu nahi izan zituzten, dimentsio kolektibo eta politikoaren nahitaezkotasuna azpimarratuz.

Zeintzuk lirateke termino honen gaurko erabilerak planteatzen dizkigun arazoetako batzuk?

Larriena, nire ustez, *emprendimiento* hitzarekin berdintzen/parekatzen ari dela. Egunotan aspertzera ino errepikatzen zaigun hitz horren bitartez, ohartu gabe, sistema neoliberalaren ideologiarik makillatue-na eta ezkorrena barneratzen ari gara, norberak edozein proiektu erdiesteko gai den edo izan beharko lukeela konbentzitu nahi baikaituzte, edozein direla gure baldintza sozialak edo ekonomikoak.

Baina ahalduntze hitzak badu beste arrisku bat: ambiguoegia/lausoegia dela. “Abortatzeko eskubidea”, “lan berdina, soldata berdina”, edo “zaintza-zerbitzu publikoak” aldarrikatu eta argi gelditzen zaio entzuleari zertaz ari garen, ados egon ala ez. Baina “emakumeon ahalduntzea” esan eta zer ulertzen du gutariko bakoitzak? Elhuyar hiztegiak hitz horri dagokion sa-

rreran dakarren adibidea aproposa da mugaeta anbigutasun/polisemiatasun horiez hausnartzeko: *“Zenbait enpresatako buruzagiek emakumeen ahalduntzearen aldeko hitza eman dute”*. Ez dakit enpresatako buruzagiek eta nik irakurketa bera egingo dugun emakumeen ahalduntzeaz... esango nuke ezetz. Ahal dela, aldarri argiak eta zehatzak erabiltzea lehenetsiko nuke, horiek baitira adostasunak edo desadostasunak adierazten, gogoeta sakontzen eta irtenbideak topatzen, benetan, ahalbidetzen gaituztenak.

Horrez gain, ahalduntze prozesuak berez konplexuak, dinamikoak eta etengabeak direla ulertu behar-ko genuke. Esaterako, une batean ahalduntzen zaituen jarrera edo erabaki berak desahaldundu zaitzake hurrengoan. Maitasun erromantikoaren gaia aproposa da hau azaltzeko. Munduko zenbait testuingurutan maitasuna baliatzen ari dira neska (eta mutil) gazteak gurasoen gehiegizko boterearen aurka, norekin ezkondu erabaki ahal izateko, adibidez. Baina soberan eza-gutzen ditugu erromantizismoaren arriskuak.

Beste aldetik, ahalduntzea hitzetik hortzera darabilgun bitartean, ahaztu ohi gara ahalduntzea eta desahalduntzea batera doazela, txanpon beraren aurkia eta ifrentzua direla; hau da, norbait ahalduntzeko

beste norbait desahaldundu behar dela, emakumeen ahalduntzea aldarrikatzen duten pertsona/erakunde horietako askotxo ere bai.

Laburrera ekarrita, ahalduntze terminoaren erabileraren murrizketaren alde egingo nuke nik, edota garbi uztea zertaz ari garen erabiltzen dugun orotan.

LIDERGO FEMENINOAK ETA FEMINISTAK

Montero arlo politikoan gertatzen ari den emakumeen presentziaren hazkundeaz ere aritu da lehenago aipaturiko artikuluan, bi ideia azpimarratuz: presentzia horrek duen garrantzi sinbolikoaz ohartzeko, sorrarazi dituen erreakzio matxistei begiratzea besterik ez dugula; eta emakumeen presentzia, berez, ez dela aldaketarako bermea.

Eta haren argudioak oinarritzeko, mundu mailan ditugun kontrako adibide ugari erabili ditu, non emakumeak politika heteropatriarkalak eta neoliberalak bultzatzen ari diren.

Nolanahi ere, emakumeek, feministak izan barik, gizonek baino joera gehiago izan ohi dute, adibide baterako, baliabideak, etxebizitza-eskubideak eta giza

eskubideak defendatzeko, edo arlo pribatukotzat jotzen diren kontuetan arreta jartzeko.

Autore beraren esanetan:

*Gaur egungo panoraman, emakume askok politika egiteko bestelako erak praktikatzen dituzte, jarduera parte-hartzaileagoak, horizontala-
goak, erlazionalagoak, praxi maskulino hegemo-
niko lehiakorragoen aldean. Batzuen eta besteen gizarteratze eta subjektibotasunaren eraikuntza partikularragatik sortzen da hauxe. Emakumez-
koen kasuan, zaintza-lanen inguruko arduragatik harremanen munduarekin lotuagoa, eta gizonez-
koen kasuan, norbere lorpenetara eta eremu pu-
blikoaren proiektiora bideratuagoa. (Montero, 2016:1).*

Ilido beretik zihoan 2015eko maiatzeko 17an, *el-diario.es* agerkari digitalean, udal ekimenetan inplikaturiko zenbait hautagai emakumezko sinatu zuten erreportaje bat. Gogoetagaia: azken urteetan Estatu espainiarrean zabaldurik omen dagoen ziklo politiko berria.

Ordezkarri hauek bereizketa tinkoa egiten zuten lli-
dergo femenino eta feministen artean, emakumezkoa

izatea nahikoa ez dela egiaztatzen zuten zenbait etsenplu emanek. Beraientzat, lidergo feministek gizartea eraldatzera zuzenduak egon behar zuten, horizontalagoak eta elkarlanekoagoak izanik, eta entzutearen eta politika eta bizitzaren arteko kontziliazioaren garrantzirik abiatu, eta ez alderantziz.

Azken denboraldian, azpimarratzen zuten, subjektu politiko berri bat sortu da, zeina herritarrengandik hurbilago kokatzen den, *“komunaren kudeaketari modu berri batez ekinez: eztabaida kolektibotik, entzutetik, eta erabakietan, zaintza-lanak, parte-hartzea, inklusibitatea eta horizontaltasuna aintzat hartuz”*. Esparru politikoetan, eredu maskulino hegemonikoaren gainbehera eta esparru horien feminizazioa ere aipatzen zuten. Baina nago baieztapen horrek errealitate bakoitzaren gaurtik gehiago duela.

Euskal Herriaren historian emakumez soilik osaturiko bi hautagaitza feminista izan ditugu, biak ala biak udal hauteskundeetan: lehena, Ermuko Emakumeen Asanbladak bultzatu zuen 1987an; bigarrena, Donostiako Plazandreok taldeak, 1993an hasi eta aurkeztu jarraitzen dutena (azkena Plaz! izenarekin, beste feminista batzuekin batera). Ez dute inoiz ordezkaritza instituzionalik lortu ez bata ez besteak.

Baina azken garaian gero eta emakume gehiago parte hartzen ari dira hauteskundeetan feminismoaren goraipamenetik. Horren inpaktu sinbolikoa gutxie-tsi gabe, goiz da, nire ustez, jakiteko emakume horiek noraino izango diren kapaz kudeaketa-ereduan alda-keta sakonak sortzeko.

INBESTIDURA, BOTEREAREN TRANSMISIOA ETA BOTERE MOTAK

Amelia Valcárcel-ek (1997), Celia Amorós-en lana oinarri harturik, boterearen lehen giltza inbestiduraren esperientziarekin loturik dagoela idatzi du.

Inbestidura boterearen transmisioaren subjektu hartzailea izatea litzateke, halako moldez non pertso-na horrek beste bati pasatu diezaiokeen. Horrela, emakumeen boterea aitortua izateko, emakumeek ez lukete beren gainean leudekeen gizonezkoen berres-penik baliatu beharko (Valcárcel, 1997:116-119).

Argi dago emakumeak ez direla inbestiduraren jabe osoak, baizik eta era ezegonkorrean aritzera be-hartuta daudela. Hortaz, ezin diote daukaten ardura beti beste emakume bati pasatu, eta horrek eragiten

die beldurra, edozein unetan gal baitezakete duten posizioa.

Horrenbestez, emakumeen boterea partikularra litzateke, hauskorra, ahula, ezegonkorra: gaur baduzu, bihar agian ez. Emakumeen boterea etena da, laburbildu du Marcela Lagardek (2012).

Horrez gain, badakigu esparru instituzionaletan dauden emakumeak, emakume izate hutsagatik, jomugan daudela etengabe. Hortik, emakumeen mesedetan agintzeko prest daudenek gure babesa beharko lukete, gure kritika zorrotza nola.

Nola aldi berean babestu eta kritikatu boterean dauden feministak?

Nire ustez, ardura publikoak dituzten emakumeen botere hauskor, ahul, behin-behineko hori egonkortzeko baldintza oinarritzkoa mugimendu feminista sendo bat bultzatzea litzateke. Ez baitago inbestidurarik gizarte-mugimendu indartsu barik.

Nola ehundu emakumezko horien eta mugimenduaren arteko harremana?

Amaitzeko, boterearen esanahiaz zerbait gehiago gehitzea gustatuko litzaidake.

Ahalduntze kontzeptuaren bidez, besteekin eta besteentzat gauzatuko litzatekeen botereaz hitz egin

nahi izan dugu feministek, besteen gainean ezartzen denari uko eginez. Kargu politikoetan dauden emakumeek estilo horizontalez, elkarlanekoaz eta entzutearen beharraz hitz egiten dutenean, besteekiko eta besteentzako botereaz ere ari dira.

Nik dakidala behintzat, ez dugu informazio enpiriko nahikorik baieztatzeko Euskal Herriko erakunde publiko zein enpresa pribatu, partidu politiko edo sindikatuetan ardurak dituzten feministak lidergo mota oso ezberdinak burutzen ari diren. Intuizioak edo zantzuak besterik ez. Ikerketarako esparrua zabalik dago, beraz.

Demagun baietz, emakume horiek besteekiko eta besteentzako boterea gauzatzeko bidean jarri direla, gai hori funtsezkotzat dutela. Nahikoa izango da hori botere estrukturalak gure bideak neutralizatzeko dituen mekanismo ezin eraginkorragoak indargabetzeko?

Tradizio webertarrean, aktore batek harreman sozial batean haren borondatea nagusitzeko eta horren aurreko erresistentzia gainditzeko lukeen ahalmena litzateke boterea. Eta hiru botere-mota bereizten dira: (1) eragiteko ahalmena —manipulazioa barne—, (2) autoritatea —tradizioa, karisma...—, eta (3) indarra —

zigor materialak...— (Giner, Lamo de Espinosa eta Torres, 1998).

Emakume eta gizonen arteko botere-talkak eta gizonen dituzten erreakzioak ikusita, ez genituzke aurreikusi beharko hiru mota horiek guk geuk ere? Zergatik uko egin “besteen gaineko” balizko botere horren inguruan pentsatzeari: nolakoa, zein baldintzatan, noraino...?

Boterearen definizioa alde aurretik murriztea baino botere-karguetan (edozeinetan) egoteko baldintzez pentsatzea iruditzen zait premiazkoagoa. Zenbait baldintza hauexek lirateke: boterea txandakakoa izatea; ardura kolegiatu edo koralean alde egitea, hau da, pertsona bakarreko posturik edo koordinaziorik ahalik eta gutxien eratzea; botere horri zenbait muga ezartzea... .

Balizko baldintza horiekin zuzenean loturik ere, aztertutako beharko genuke nola konpentsatu eta nola dibertsifika daitezkeen boterea denboran eta espazioan. Esaterako, eremu batean (demagun, unibertsitatean) boterea duen pertsona batek botererik ez edukitzea parte hartzen duen bestelako jardura publikoetan (elkarte batean...), edo lehenago edo geroago izango

dituenetan. Eta hau erabilgarria liteke edozein testuingurutan, baita feminismo barruan ere.

Azken ohar bat. Emakumeak botere-karguetan inplikatzera animatu eta bultzatu behar ditugun modu berean, ondo identifikatu beharko genituzke gizonezkoek baztertu ohi dituzten lanak eta postuak (ohike-riazkoak eta zehatzak diren zereginak, adibidez). Eta horiei ezetz esaten hasi. Ez botereari berari uko egi-teagatik, baizik eta toki horietan genero ezberdintasunak berresten direlako. Emakumeen menperatzea elikatzen duten arduren aurrean, beraz, intsumisia praktikatu beharko genuke.

EMAKUMEEN ARTEKO ALIANTZAK ETA GIZONEN KONPLIZITATEA

Neronek unibertsitate barruko zenbait arduran izan dudak eskarmentu txikia aintzat hartuz (baina uste dut esatera noana orokortu daitekeela), egiazta-tu ahal izan dut emakumeen arteko aliantzak funtsezkoak direla, babeserako eta kritikarako ezinbestekoak baitira. Baina gizonezko batzuen konplizitatea ere zaindu beharrekoa da.

Egon badaude emakumeen “azpian” lasai asko egoten dakiten gizonezkoak, zurekin besoz beso lan egiteko prest. Horien babesa ere ezinbestekoa da. Gainera, emakumeak ez gaude presente leku eta une guztietan eta gizonen arteko dinamiketan ere paper zentrala izan dezakete aliatu horiek.

Badakigu, dena den, gizon guztiak ez direla gure konplize, ezta gutxiago ere (emakume guztiak ere ez diren bezala) . Etxaidek ere gogorarazi moduan, gizonak beraien arteko sare eta itunei eman ohi diete lehentasun osoa, ideologiak ideologia. Beraz, boterea banatzeko aliantza eta konplizitateez gainera, beraien kontra lehiatzen ikasi beharko dugu. Botere-banaketa, azken batean, zerbait bada, gatazkatsua da-eta.

Lagardek (2003) adierazi du ere botere-karguetan dauden emakumeek, batzuetan, haien burua ordezkatzeko dutela soil-soilik, eta beste batzuetan, beste emakumeak edo kolektibo osoa. Baina emakume bat boterean dagoen aldiro emakume guztiak ordezkatzeko dituela sinbolikoki. Hauxe, gehitu du, arazo izan daiteke baina aukera ere bai.

Arazo, ezin baititugu (ezta behar ere) emakume guztiak ordezkatu. Baina arazo ere aipaturiko lotura

sinboliko hori ezartzen delako nahitaez. Eta lotura horren inguruan argi eta zuhur jokatu beharko genuke.

INDARKERIA MATXISTA: NIRE BURUA ORDENATZEKO SAIO BAT

Indarkeria matxistaren gaiak lanketa feminista luzea izan du.

Duela hogeita hamar urte, Asanblada guztietan propio eratu ziren batzordeek lehentasun teorikoa eman zioten eta protestak nahiz mobilizazioak bultzatu zituzten, indarkeria eremu domestikotik “atera-tzea” eta aldaketa legalak helburu (Hernández, argitaratzear).

Tratu txarrak jasaten zituzten emakumeentzako zerbitzuak ere sustatu ziren zenbait lekutan, arreta feministaren beharra azpimarratuz. Nahiz eta mugimenduan adostasunik egon ez zerbitzuen inguruan.

Baina argi dago gai honek gailentasun politiko osoa irabazi duela XXI. mendean (Cucó, 2014:240). Lehen mailako gai mediatiko eta politiko bihurtu da, eta kaleko salaketak eta protestak gero eta ugariagoak dira. Zenbait erakundetan ere indarkeria matxistaren kontrako planak proposatzen ari dira.

Haatik, hein batean, arlo honetan, hiru aspektutan behintzat, muga jo dugula ere esan liteke: arlo juridikoan, teorikoan, eta salaketen edo protesten arloan.

Estatu espainiarrean, 2004an argitaratu zen Ley de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género delakoarekin gertatu dena etsenplu ona litzateke. Gizarteak uste du arazoa bideratuta dagoela baina errealitatea aztertuz gero argi dago ezetz. Ez bakarrik legearen mugengatik (indarkeriaren definizioa, esate baterako), baizik eta praktikan emakumeak ez daudelako inondik inora babestuta, eta hainbatetan ere biktimario bihurtzen dira. Guztiaren atzean, baliabide falta, epai-operadoreen formakuntza eza eta ideologia sexista daude.

Arlo teorikoan, indarkeriaren analisia sofistikatur joan da eta irakurgai berriak sortzen ari dira, geroago laburtzen saiatuko naizen bezala. Baina, ororen buruan eta kontrakoa dirudien arren, esan liteke jarraitzen dugula sakonki ulertu gabe zergatik gertatzen den gertatzen ari dena. Eta Begoña Pernas-ek (2015) adierazi duenez, *“zaila da borrokatzea ulertzen ez den gaitzaren kontra”*.

Protestei dagokienez ere ez al da sabaia jo dugula antzematen?

Nago erailketa baten aurrean ordezkari politikoak eta feministak bildu ohi gaituzten elkarretaratzeek, pankartari nork heldu edo komunikabideei nork hitz egin lehian, ez dutela askoz gehiagorako ematen. Jakitun gara eta ekimen berriak proposatzen ditugu baina esperimentaziorako beharra zabal-zabalik dago. Hurrengo orrialdeetan itzuliko naiz gai horretara.

TERMINO ETA TEORIA OROHARTZAILEEN BILAKETA

Pernas-ek (2015) indarkeria azaltzeko egiten ari diren irakurketa teorikoen bilketa-lana egin du, bi lotura teoriko nabarmenduz: patriarkatuaren eta indarkeriaren artekoa, batetik, eta berdintasunaren eta indarkeriaren artekoa, bestetik.

Patriarkatua eta emakumeen kontrako indarkeria lotzeari dagokionez, gauza bat eta kontrakoa defendatzen ari da. Batzuen ustez, patriarkatua bera biolentzia da eta tratatu txarrak eta erasoak berezko ondorioak. Bourdieuk eta beste batzuek ordezkatzan duten beste tradizio batean, biolentzia sinbolikoaren kontzeptua proposatu da adierazteko subjektuek (gure

kasuan emakumeek) arrisku- eta gutxiagotasun-egoerak onartuko lituzketela hainbat arau eta ekintza-modu barneratuz. Bestetik, Hannah Arendt-en ideietan oinarrituriko planteamendua genuke, non defendatzen den patriarkatuak ez lukeela biolentziarik beharko, gizonen botere soziala eta ekonomikoaren instituzionalizazioa bermatzen baitu. Azken hau laburbil liteke esanez indarkeria, maila batean, boterearen eta sistemaren porrota dela, akatsa.

Autoreak aipatzen duen berdintasunaren eta indarkeriaren arteko loturari dagokionez, badugu joera pentsatzeko berdinen artean biolentziak desagertzera egiten duela, komunikazioa, gatazka edo kontsentsuaren bidez ordezkatuta. Baina hori eta kontrakoa ere gerta daitezke: *“Hain zuzen, berdintasuna problematiko bihurtzen da gizarteak diferentziak aintzat hartzen dituen oinarri kultural eta zilegi bat aitortzen ez duenean”* (Pernas, 2015).

Argudio-bide hau muturrera eramanez ondorioztatu beharko genuke, patriarkatua disputatzen ari den testuinguru batean bizi garenez, indarkeria kasuak guxtitu baino hazi egingo direla.

Maria Naredok, bere aldetik, Basaurin 2016ko abenduan antolaturiko jardunaldietan, indarkeria ma-

txistaren inguruan nagusi den irakurketa episodikoa estruktural bihurtu behar dela esan zuen, eta erreparazio integralerako eskubidea aldarrikatu zuen, ikuspegi feminista eta giza eskubideen markoa erabiliz.

Autore horrek triangelu kontzeptual batean oinarritu zuen haren hitzaldia: egia, justizia eta erreparazioa. Egiaren arloan sakoneko ikerketaren beharra defendatu ostean, asistentzia letratua eta auzibide justuen alde egin zuen. Erreparaziorako zenbait gai ere zehaztu zituen: kalteen kuantifikazioa, emakumeen suspertze osoa, aitortza judiziala, biolentzia errotik desagerraraztea...

Eraildako emakumeen segida amaigabe etsigarriak gaitzespena sor dezake, baina baita inpotentzia eta “indarkeria matxista txarra da” jarrera akritikoa ere.

Egoera nahasgarri horren aurrean, feminismoaren tendentzia “dena da biolentzia” azpimarratzea izaten ari da, edozein eskubide-urraketa edo emakume eta gizonen arteko ezberdintasunari indarkeria deitzea, azalpen sakonik egin gabe.

Baina, ni neu behintzat, genero arloan gertatzen diren ezberdintasun eta menderatze guztiak ala guztiak indarkeriaren logikara eramateak ez nau asebete-

tzen. Batetik, “biolentoa” zer den ez dugu adostuta; eta bestetik, dena biolentziazat hartzeak duen ondoriozko larriena, diagnostiko sozialak eta esku-hartzera-ko aukerak pobretzen dituela. Are gehiago biolentzia matxistaren gaia norbanakoen jarrerekin lotua dugun testuinguru batean.

Adibide bat jarriko dut esaten ari naizena argitze-ko. Egiaztatuta dago emakumeek, oro har, balio berdi-neko lanen truke soldata baxuagoak dituztela. Hori biolentzia al da? Bada bai, biolentzia estrukturala eta ekonomikoa. Baina fenomeno hori bere sakontasu-nean ulertzeko (eta borrokatzeko) lan-banaketa se-xualari, ekoizpen-ereduari, eta abarrei begiratu behar-ko diegu, horretarako berariazko kontzeptuak eta teo-riak aplikatuz.

Indarkeria izendatzeko eta berrizendatzeko ema-ten ari diren saioez ere zerbait esan nahi dut.

Urteak eta urteak daramatzagu feministok termi-no egokienaren bila. Zer pentsatua ematen du jarrera horrek zeren ez baitugu horrela jokatu esku artean izan ditugun beste gai guztiekin, ez behintzat intentsi-tate edo jarrera berarekin.

Konparazio batera, eta beste muturrera joanez, duela berrogei urte martxan jarri genituen kontrazep-

zio eta sexualitate zentroak “famili plangintza zentroak” deitu ohi genituen (“planning” edo “planin” ezizenaz), horretarako Europa osoan zabaldua zegoen terminologia hona ekarrita, bertan transmititu nahi genuen ideologiatik kilometro askotara. Jabetuta geunden, nola ez, izena eta izana ez zetozeela bat, baina aurrrera egin genuen, eta esango nuke lan txukuna egin gnuela eta jarraitzen dutela egiten orain arte iraunduten zentroek.

“Indarkeria matxista” lehenesten dugu orain, baina emakumeen kontrako indarkeria, genero indarkeria(k), indarkeria sexista, indarkeria sexuala... ere hor daude. Pasa den azaroan *Indarkeria birpentsatzen* lelopean Emakumeen Mundu Martxak, Donostian, antolatu zituen jardunaldietan, hitzetik hortzera darabilzkigun izen horiei guztiei egin zitzaien errepasoa, azken urtean proposatu den berri bat gehituz: sistemarteko indarkeria.

Ematen du izenik egokiena topatzeak politika egokiena ere asmatzea eta martxan jartzea berez ekarriko duela. Baina ez al du horrek erakusten, neurri batean behintzat, ezintasun maila bat bizitzen ari garela?

Edozein kontzeptuk badauzka bere ahuleziak eta problematizatua izan behar du, eta jarrera hori erabat emankorra izan da betidanik feminismoan. Gogora dezagun, adibide baterako, publiko/pribatu, emakume/gizon, homosexual/heterosexual... bezalako diskontomieiei buruz egindako lan eskerga. Edo “genero” kontzeptuari berari buruzkoa.

Baina nago prozesu horri muga bat jarri behar zaiola, arindu pixka bat.

Emakumeen Mundu Martxako jardunaldietan, Bilgune Feministaren izenean Idoia Arraizak proposatu zuena zentzuzkoa iruditu zitzaidan oso: lortu behar dugu arlo honetan mugimendu feminista izatea kontzeptualizazio subjektua, baina mahai gainean ditugun kontzeptu guztiek ala guztiek dute erabilgarritasun kuota bat, eta “onena” bilatu ordeztu, testuinguru bakoitzari dagokiona aukeratzea ere onargarria izan daiteke.

Sexismoa, arrazakeria, kolonialismoa, kapazitismoa, helduzentrismoa eta bestelako botere-hierarkiei aipamena egiten dion sistemarteko indarkeriaren terminoaren adibidearekin jarraitu zuen Arraizak. Potentzialitate osoa daukala kontzeptu horrek, subjektu politiko anitzaren ideien existentzia sustatzen baitu

eta hierarkia mota guztiak ordenatzeko aukera ematen; baina, era berean, kontzeptualki ulertzeko ere gaitza da: ez dakigu beti zertaz ari garen eta, jakinda ere, ez dago argi hierarkia horiek nola lotu beharko genituzkeen edo zein den subjektu ekintzailea. Eta, gehituko nuke nik, nortzuk eta zertarako gauden lanean.

Hau da, ohartu gabe, teoria praxitik urrunegi gelditzen zaigu kontzeptualizazio horietan. Eta borrokatu nahi duguna, gogora dezagun, emakumeek emakume izate hutsagatik (eta beren artean duten askotarikotasuna ahaztu barik) jasaten dituzten erasoak dira, bortxaketatik erailketaraino.

Gauza bat da konplexutasuna eta sakontasuna ematea gure diskurtso edo politikei eta beste bat, oso bestelakoa, gaur egun praktikatzen dugun hitz eta esamolde potoloen eta itzulezinen gurtza.

INDARKERIAREN KONTRAKO EKINTZAK: ESPERIMENTAZIORAKO TARTEA

Lau dira egun eraso matxista ezberdinei aurre egiteko erabiltzen ari garen bideak: kaleko agerraldiak,

judizializazioa, komunikabideak eta heziketa. Azken honi dagokionez badaude oso ekimen interesgarriak eta oparoak gurean, gazteei zuzendutako *Beldur barik* programakoak, adibidez. Atal honetan, baina, beste hiruren inguruan zenbait galdera egin nahi nituzke.

Gero eta argiago dago espetxealdiak ez dituela erasotzaileak eraldatzen (Angela Davis-ek Euskal Herrira egindako bisitan ezin hobeto adierazi zuen moduan), nahiz eta kasu larrienetarako behintzat beste alternatibarik ez eduki momentuz. Era berean, salaketa poliziala ez da beti ez ezinbestekoa ezta irteerarik onena ere, egoerak txarrera egin baitezake eta irtenbide bat topatzea zaildu (emakume batek haren bikotekidearengandik jasotzen dituen tratatu txarren kasuan, zenbait kasutan, esate baterako). Bestetik, eraso eta egindakoaren aitortza/erreparazioaren artean orekarik doiena bilatzea litzateke helburu behinena. Neska bat bortxatu duen mutil gazte batek, adibidez, auzitegian/kartzelan bukatu behar du nahitaez?

Honetan baditugu beste bi zailtasun: (1) Feministok legeari eta legearen aplikazioari aitortu ohi diegun garrantzi sinboliko ikaragarria. (2) Gure zirkulu politikoetan dauden gizonen eta ezezagunen usu aplikatzen diegun baremo ezberdina. Ezezagunen kasuan ez ohi

dugu inolako erreparorik zigorrik handiena eskatzeko. Hurbileko mugimenduetakoekin, aldiz, hortxe ibiltzen gara irtenbiderik onena topatu guran eta egoera delikatua haztatzen... Eta tarteka ere mugimendu horien zartada gure kontra bihurtzen da. Nire ustez, irizpidea bera izan beharko litzateke batzuentzat eta besteen-tzat: ezagunentzat balio duenak ezezagunentzat ere balio beharko.

Aldiz, erasoen inguruko notizien mediatizazioari dagokionez, ez (omen) dugu batere zalantzarik: oro har, badago joera pentsatzeko zenbat eta informazio gehiago azaldu komunikabideetan, hobe. Eraso sexisten gaia izar mediatiko bilakatu da Euskal Herrian eta Estatu espainiarrean, nahiz eta medio batzuen eta besteen tratamenduan alde handia egon, jakina.

Eraso askotarikoen gainean azken urtean agertu diren erreportaje eta iritzi-artikulu andana ikusita, *Be-rrri*ko artikuluan idatzi nuen indarkeria matxistaren jor-raketa mediatikoaren inguruan patxadaz hausnartze-ko garaia heldua dela iruditzen zitzaidala. Indarkeria-ren kontrako atxikimenduen metaketa publikoak era-gin positibo handia duela kontzientziazioaren areago-tzean. Baina galdetzen nuen ea “saturazio mediatiko-ak” ez al duen inongo ondorio ezkorrik edo albo-kalte-

rik sortzen. Ez al dagoen beharrik, adibidez, ekintza horiek eta ekintza horien inguruko berriak taxuz dimentsionatzeko eta helduleku berriak asmatzeko.

Honez gain, beste bi zalantza azpimarratu nituen gerturatze mediatikoaren inguruan: bata, ea ez ote gauden eraikitzen, nahi gabe, iruditeria bat non (gizon eta emakumeen arteko) intimitatea, sexualitatea, bi gorputzen arteko enkontru eta jolas gozagarria, beste gorputzekiko jakinmina/hurbilketa, gorputza bera... negatibizatzen ari garen, balizko eraso izanik behin eta berriro nabarmentzen dugun alderdi bakarra. Hemen gerta daiteke osasun arloan gertatzen den gauza bera: medikuntzak osasunaz sorrarazten duen ideia gaixotasunarekin eta patologiarekin lotua gelditzen dela, eta kito. Bigarren duda, kezkagarriagoa oraindik, notizia horien uholdetik azaleratzen den ideia ez ote den emakumeak, finean, ez garela gai eguneroko egoera horiei aurre egiteko gu geurez, eta estatuaren, komunikabideen edota mugimendu feministaren babesa bilatzera derrigortuta gaudela. Hau da, emakumeen kustodializazioa elikatzea, ahalduntzearen kontura orriak eta orriak bete arren.

Bada, aitortu behar dut 2016ko udan gertaturikoak nire hitzak ñabartzera eraman nauela. Guztion eza-

guna denez, Sanferminetako bortxaketa kolektiboaren kasuak bolbora legez hedatu zuen jaien eta eraso marxisten arteko harremanaren gaia gure mugetatik kanpo ere. Gertakari horren inguruan epailearen, udal ordezkarien eta, guztiaren gainetik, urteak lanean birkain daraman Gora Iruñea plataformako feministen erreakzioak funtsezkoak izan ziren.

Deitu nazazue optimista, baina esango nuke 2016ko udan gauzak mugitu egin zirela, milimetro bat nahi baduzue, baina mugitu. Eta ez bakarrik feministok jaietarako protokoloak findu ditugulako edo politikariek agerraldiak egiten dituztelako indarkeriaren kontra. Ez. Gauzak zertxobait aldatu dira: jende arrunta erreakzionatzen hasi da eta erasotzaileei aurre egiteko prest dago. Hala gertatu da zenbait lekutan. Hor ikusten dut nik aldaketa.

Eta prozesu horretan erabakigarria izan zen komunikabideen papera.

Hala ere, jarraitzen dut pentsatzen indarkeria marxistaren tratamendu mediatikoak merezi duela gogoeta feminista bat edo beste.

Protesten arlora pasatuz, eztabaida interesgarriak sortu dira feminismoan azken urtean zenbait ekintza-aren inguruan, nahiz eta, noiz edo noiz, sare sozialetan

erabilitako lintxamendu doinua gehiegizkoa izan nire gusturako. Feminista gazteek, han-hemenka, “beldurak aldeztatu behar du” lelopean, bultzaturiko gaueko protesten harira gertatu dena, esate baterako.

Begi-bistakoa da emakumeen ekintza publikoak ez daudela normalizatuta. Gazteei zuzenduriko fikziozko serieak ikustea besterik ez dago egiaztatzeko emakumeoi hobesten zaigun ekintza publiko bakarra maitasunaren arlora mugatzen dela, Ruth Iturbide (2016) ikertzaile nafarrak haren doktore-tesian aztertu moduan. Emakume batek biktima posizioari uko egiten dion unean biktimario bihurtzen da.

Horrekin loturik, badugu beste oztopo larri bat: Euskal Herrian bizi (izan) dugun egoera politikoaren metabolizatze gaitzaren ondorioz, indarra erabiltzea (baita maila sinbolikoan ala erritualean bada ere) tabu bihurtu da eta hori emakumeen ekintzak mugatzeko ere baliatzen ari da.

Zenbait feministak defendatu dute autodefentsaren filosofia eta jarrera zabala dela eta horretara mugatu behar garela.

Autodefentsa izan da euskal feministek erabilitako estrategia nagusietakoa, emakume gazteen artean arrakasta osoarekin. Noranahi begiratzen duzula topa-

tzen duzu halako tailer bat. Eta jorraketa bikaina suposatzen du zeren indarkeriaren kontzientziazioa teknika fisiko eta emozionalen ikasketarekin uztartzen baita, azken atalean aipatuko dudan gorputz politiko sendo bat osatuta gelditzen dela.

Baina, autodefentsarekin batera, esperimentaziorako tarteak arakatu eta zabaldu behar dugula azpimarratu dute beste batzuek. Eta sormena handituz doala argi dago.

Indarkeria matxistaren kontrako ekintzetan, “indarkeriaren performancearen” egokitasuna aldarrikatzen ari dira gaur egun Medeak taldekoak, esate baterako; eta proposamen horrek gogoetarako behintzat ematen duela iruditzen zait.

Dena den, nire ustez, gakoa neskei eta emakumei autoritatea/indarra sentitzen eta erakusten ikastea litzateke. Eskolan irakaslerik eraginkorrena, konparaziora, ez ohi da ikasleen aurrean garrasika edo txilioka dabilena, begirada edo keinu batez taldea kontrolatzen dakiena baizik. Horretaz ari naiz. Ez dakit horretarako indarraren performancea baliatzea efikaz izango den, agian balio sinbolikoa izan dezake. Edozein kasutan, panorama ikusita, froga/akats asko egin

beharko ditugu, haserretik eta baita ludikotik ere, eta horretarako sormena piztu.

ZAINTZA EDO FEMINISMOA SENTIMENTALIZATZEKO ARRISKUA

Zaintzaren gaia feminismo garaikidearen zutabe nagusietako bat da, izargunea.

Feminista guztiok, edozein dela gure eremua edo ideologia, bat gatoz emakumeoi esleitu ohi zaizkigun zaintza-lanen garrantzi sozialarekin. Baina, gogoetak, diskurtsoak eta jarraibideak askotarikoak dira, elkarren artean kontraesankorrak izateraino.

Ikuspegi guztiak *continuum* batean jarriko bagenu, alde batean, Carol Gilligan (1982) edo Sara Ruddick (1989) bezalako autoreak egongo lirateke, emakumeek ohi luketen zaintzaren etikaren unibertsalizazioa edo ama-pentsamenduaren onurak defendatuz.

Beste aldean, berriz, lan-banaketa sexualak berearekin dakarren emakumeen bereizkeria sozial eta ekonomikoaren ideia oinarri hartzen duen ikuspegi materialista eta ez-diferentzialista defendatzen dutenak egongo lirateke. Alde honetatik gertu lerratuko litzateke, Bizkaian, 2005-2008 urte bitartean aktibo egon zen Zaintza Plataforma, non hainbat talde feminista eta sindikatutako partaideak bildu ginen.

Bigarren posizio horren oinarrian ez legoke emakumeek egiten dutenaren balizko balioa, emakumeak musu-truk zaintzera bultzatzen dituen ekoizpen-eredua eta lanaren antolaketa bera baizik. Egiten ari garen lana (zer, zenbat, nola...) egitura sozialak erabat baldintzatua baitago. Horren aurrean, Zaintza Plataformaren ustez, emakumeen eta gizonen (eta belau-naldien) arteko egitekoen banaketa eta zerbitzu publikoen sorrera, biak ala biak, ezinbestekoak lirateke.

Baina, posizio horien artean konbinazio mota guztiak aurki daitezke. Estatu espainiarrean, gai honetan aitzindariak izan direnen artean, bi izen propio aipatu beharko genituzke: 80etan etxeko lanen balio ekonomikoa ikertzen hasi ziren Cristina Carrasco ekonomialaria, eta María Angeles Durán soziologoa, 1999an argitaratu zen *Los costes invisibles de la enfermedad* liburuaren egilea.

Egunotan ekonomia feministak dauka honetan protagonismo eta oihartzun osoa. Lan teoriko eta enpiriko eskerga egiten ari dira ekonomialariak, emakumeek gizarteari eta ekonomiari egiten dioten ekarpena azalarazteko, eta ekonomiatzat hartzen denaren edukiak eta mugak zabaltzeko.

Amaia Pérez Orozco (2013), Estatu espainiarrean dagoen autoritarismoaren eta oparoenetakoak idatzitako ekonomia feministan kontsentsu zabala dagoela bizitzaren jasagarritasunak azterketaren erdian egon behar duela, merkatuak lekualdatuz. Eta galdeztzen dio bere buruari: *“Ez al gara bizitza ulertzen ari gitura sozio-ekonomikoen artikulaziotik aparteko zerbait bailitzan?”* (2013:6).

Euskal Herrian izan diren jarduera feminista kolektiboak begiratu, Bizkaiko Emakumeen Asanbladarenak dira, nik dakidala, zaintzaren unibertsalizazioaren eta ugalketa lanen banaketaren inguruko lehen ekin-tzak, 1991n.

Ordudanik anitz izan dira aktibitateak eta ekitaldiak 2005ean Zaintza Plataforma sortu arte. Bi ekimen hautatze aldera, 1993an, Euskadiko Emakumeen Asanbladen Martxoaren 8ko kanpaina azpimarratuko nuke, “Etxeko derrigorrezko zerbitzuari ez! Intsumisioa” lelo nagusiarekin. Azpimarragarria ere, 2003an, Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailean onartzera zihoan Gizon eta Emakumeen Berdintasun Legearen kariatara sortu zen plataforma, non Araba, Bizkaia eta Ermuko Emakumeen Asanbladak, Plazandreok, Zero Taller Soziologikoa, eta STEE-EILAS, ESK eta CCOO sin-

dikatuetakoa partaide eta emakume independenteak bildu ziren.

Beste aldetik, Emakundek “Zaintzeak kostua du. Zaintzearen kostuak eta onurak” izenburuko Kongresua antolatu zuen, 2003ko urrian, Donostiako Kursaal-en. Biltzar horretako ponentzia batzuen haritik, 2004ko maiatzean, “Zaintzen gaineko gogoetarako mintegi” bat eratu genuen Ermuan. Hortik jaio zen Zaintza Plataforma sortzearen ideia, hain zuzen ere.

Bukatzeko esan behar dut atal honen helburua ez dela gai honek duen muntan gehiago sakontzea, horretarako soberako bibliografia dago-eta; baizik eta, zaintzaren inguruan feminismoan dagoen “hipertrofia”ri buruz hausnartzea, horren ekarritik abiatuta baina arrisku eta ahulguneetan arreta guztia jarritz.

Hipertrofia horren arriskua feminismoaren sentimentalizazioa litzateke, erromantizismoak jota dagoen gizarte/kultura baten gaitza. Zaintza ulertzeko ohikoa bihurtu den gain-dimentsionatze emozionalak ere sentimentalizazio horren alde egingo luke.

ZAINTZAREN MUGAKETA KULTURALAK ETA KONTZEPTUALAK

Zaintza kontzeptuaren demaseko erabilera feministari dagokionez aipatu nahi dudan lehen aspektua mugaketa historiko eta kultural eza da.

Feminismoan ohikoa da pentsatzea edozein testuingurutan hauteman daitezkeela zaintza-lantzat hartzen ditugun zereginak, gure gizartean duten tankera eta antolaketa-modu berarekin. Ez gara ohartzen lan horiek zentzu osoa hartzen dutela antolaketa sozial eta ekonomiko zehatz batean, non ekoizpen eta gizarteratze bide konkrituak bultzatzen diren, non gizonezkoak merkaturako ondasunen ekoizpenera eta emakumezkoak zaintzara orientatzen dituen lan-banaketa sexuala ardatz nagusietako bat den.

Izan ere, zaintza kontzeptuaren balioan edo erabilgarritasunean sakontzeak, domestiko/publiko eta ekoizpen/ugaltze eta antzerako binomioen inguruan eginikoaren tamaina bereko berrikuspena eskatzen du. Eta kritika horretan guztiz lagungarria (izan) da bai kulturarteko erkaketan oinarritzen den lan antropologikoa bai ikerketa historikoa.

Mendebaldeko une historiko batean sortzen diren binomioen analisi feministek kontzeptu horien potentzialtasuna utzi dute agerian baina baita haien mugak ere, batez ere, emakume izatea edo gizon izatea edonon gauza bera dela uste den tradizioan erroturiko nozioak direlako. Tradizio etnozentriko horretatik bultzatu ohi den ideietako bat da emakume izatea, amatasuna, zaintza-lanak edo etxeen antolaketa berdinak direla munduarte, eta edonon dagoela, eremu politiko-juridikoari kontrajar dakiokkeen eremu pribatu bat. Baina antropologiak argi utzi du kategoria horiek, edo ezin direla edozein gizartetan erabili, edo adiera ezberdinak hartzen dituztela.

Ekinbide kritiko bera jarraitu beharko genuke zaintza-lanei dagokienez.

Zaintza terminoak genero-marka du bere baitan. Hausnar dezagun une batez zaindu eta artatu terminoen arteko aldeaz. Zaintzea emakumeek egiten dutena izan ohi da (baita eremu profesionalean ere) eta, aldiz, artatzea lanbide zehatzekin dago lotua (medikuntza, esate baterako), gizonezkoetatik hurbilago.

Beste era batera esanda, bikoizketa hori ez da lehenago aipaturiko binomio horien bertsio modernoa baino, ondorio ezkor antzekoekin, zeren emakumeen

kontra joango bailirateke, emakumeen eta gizonen eskema bereiztaileen indartzea ahalbidetuz.

Osasungintzari dagokionez, zaintza-lanen inguruko teorizazioa oso presente dago erizain askok beren lanbidea medikuntzaren maila berean aintzatetsia izateko erabili ohi duten estrategian (*caring* teoria, ingelesez), argudio-ildo nagusi batekin: jarduera horren balizko dimentsio humanista, erlazionala, emozionala eta afektiboa. Baina, kasu honetan, ez al dira planteamendua aldrebes egiten ari? Behin eta berriro errepikatzen den emakumeen ekarpenaren berariazkotasun hori, une historiko batean genero ezberdintasunak sustatzeko asmoz bultzatu zen medikuntza eta erizaintzaren arteko banaketa artifizialaren, eta emakumezkoen zegozkien lanbideen hierarkizazioaren ondorioa baino ez litzateke. Ez alderantziz.

Alternatiba hobeak ez edukitzeak ez du berarekin ekartzen ez garenik jabetu behar erabiltzen ditugun kategorien mugez. Gisa honetan, Zaintza Plataformatik zaintza terminoaren erabilera ahalik eta zehatzaren aldekoak izan ginen, adina edo gaixotasunagatik mendekotasunen bat duten pertsonetik egiten diren jarduerekin lotuz.

ZAINTZAREN GAIN-DIMENTSIO EMOZIONALA ETA AFEKTIBOA

Zaintza-lanen dimentsio emozional eta afektiboa hipertrofiatzeko dugun ohitura zailtasun beraren ifrentzua izango litzateke. Hizkuntza afektiboaren bidez, lan horren ezaugarri nagusia emozioak direla ideia eraikitzen da, emakumezkoen eginbeharrekin lotuz.

Ez naiz ni izango besteen arretan emozioek duten garrantzia ukatzen duena. Baina lotura hori eta emakumeak izaki emozionaltzat (eta ondorioz, zaintzeko egokienak) hartuak izatearen egitatea gizarte-erakuntza bat da, emakumeen eta gizonen ekarriak eta eremuak bereiziz. Gainera, planteamendu horrek edozein lanek duen konnotazio emozionala ezkututzen du eta zainketarik onena sentimenduak presente dituen delatentsatzera eramaten gaitu, zerbitzu publiko nahikoen eta kalitatezkoen defentsarekin kontrajarrit.

Emozioak eta sentimenduak ulertzeko eta bizitzeko erak ez daude kulturetatik eta botere harremanetatik at. Emozioak ez dira fakto bat, mundua eta harreman sozialak baloratzeko moduak baizik. Koordinatu sozial, politiko eta ekonomiko zehatzetan sentitzen

dugu, eta emozioak testuinguru horietan dauden dilema, tentsio eta gatazkak bideratzeko tresnak dira. Hortaz, testuinguru moral eta politiko batek bultzatzen ditu emakumeak zainketa bizitzeko eta praktikatzeke modu batera.

Emozioen garrantzia birdimentsionatu eta afektuen, emozioen eta zainketen artean bereizi beharko genuke. Zer da zaintzea, azken batean? Pertsonen elikadura, garbitasuna, mugikortasuna eta intimitatea bermatzea; enpatia, eta egoera eta beharrian ezberdinak diagnostikatzeko ahalmena/praktika; segurtasun fisiko eta psikologikoa eta errespetua eskaintzea; pertsona zainduen autonomia eta askatasuna bultzatzea...

Horrekin batera, zaintzen duten pertsonen lan-baldintza bidezkoak (lana/atsedena, ordainsariak...) ziurtatu behar dira, eta laguntza eta formazioa eskaini (edukiak, gaitasun instrumentalak eta emozionalak...).

Laburbilduz, emakumeen balioak eta gaitasunak aitortu edo orokortu behar dira betiere ikuspegi kritiko eta autokritikotik.

ELKAR BABESTEKO SAREEK
IRAKASTEN DIGUTENA:
KONTZEPTU BERRIEN BILA

Crítica del pensamiento amoroso liburuan (2011) murgildurik nengoela behin eta berriro azaleratzen zitzaidan gai batean sakontzeko irrikaz gelditu nintzen.

Elkarrizketaturiko emakume feminista guztiek, batek izan ezik, edozein zela haien egoera afektiboa, adiskidetasuna zeukaten bizitzaren sostengu eta babes nagusi. Binakakoak edo taldekoak izan zitezkeen harreman horiek baina beraiekin izandako solasaldietan marrazten zen atzealde bat non adiskideak haien bizitzetako zutabe irmoa ziren, gehienbat emakume horiek gizartearen kontrako erabakiak aurrera eramane nahi zituztenean.

Hortik sortu zitzaidan “elkar babesteko sare edo komunitate” deitu dudan fenomeno astiroago aztertzeko gogoia.

Izaera egonkorra duten pertsona-elkartze iraunkor hauek, nire ikerketaren kasuan, ideologia feminista eta elkarbizitza- eta maitasun-egoera askotarikoa duten emakumez osatuta daude, partaideen kopurua

ezberdina izanik (banakako batzuk izatetik dozenaka lagun izateraino). Horrela definitu ditut:

Talde horien ezaugarri nagusia elkarrekin ekitea eta elementu oso ezberdinak partekatzea litzateke: elkarren babesa, babes ekonomiko, material, psikologiko eta morala, egunerokotasuna sustatzeko jarduerak, osasunari eta hazkuntzari dagozkien zaintza-lanak, edo aisialdirako jarduerak eta jarduera sozialak eta politikoak... Hau da, modu iraunkor batean funtzionatzen duten elkarren zaintzan eta elkartasunean oinarrituriko pertsonen elkartzeak lirateke. Dena den, talde horiek beraien arteko loturak areagotuko lituzkete une zehatzetan (gaixotasuna, lanaren egoera, ume baten jaiotza...) [...]

Beraz, era askotariko jardueren bidez (aisialdia, kultura, politika...) sendotuz doazen lotura material, politiko eta sinbolikoez ari gara; baina baita ospatzen edo erritualizatzen diren gertakari ezberdinen harira, hala nola, urtebetetze jaiak (hamarkadaren aldaketakoak, batez ere: berrogeiak, berrogeita hamarrak, hirurogeiak...), lan arrakastaren edo arrakasta pertsonalen aitzakian. Emakume bat talde batean baino gehiago-

tan egon daiteke, sare horietatik kanpoko harremanak edukitzeaz aparte (senideak, bikotea, adiskideak...). Hau da, taldeen arteko gurutzaketak gerta daitezke eta gertatzen dira. (Esteban, 2016:269).

Nire asmoa ez da talde hauek bestelako adiskidetaldetarik erabat bereiztea, baizik eta dituzten berezitasunak nabarmentzea.

Vincenzo Padiglione-k (1978) ondorengo ezaugarriak zehaztu ditu adiskidetasunaz hitz egiteko:

Borondatezkitasuna, afektibotasuna, berdina baina diferenteak izatearen ustea, komunikazioa, konfiantza, emozioak eta pentsamenduak trukitzea, elkarrekiko konpromiso-maila bera. (in Esteban, 2016: 269-270).

Nik aztertutako taldeek, aldiz, badituzte edozein adiskide-harremanetan derrigorrez agertzen ez diren hiru ezaugarri:

(1) Emakume horien artean dagoen konpromisoa besteen behar emozional eta materialekiko; (2) bai teoriarik baita praktikan ere, familiaren (modu estu eta mugatzailean ulertuta) alternati-

ba diren harreman-estrategia osagarriak garatzen ari direla jabetzea; (3), eta aurreko biekin loturik, gehituko nuke elkar babeste sinboliko eta praktikoa mota hori harago doala, zeren elkarbizitzari, sexualitateari, politikari... dagozkion eredu sozial hegemonikoetatik at, banakako proiektuak eta bizimoduak garatzeko beharrezkoa den babesa eta sostengua bermatzen baititu. Proiektu horiek gizartearen gaitzespena eragin dezakete eta babes hori funtsezkoa da. Hau da, defentsiboak baina, aldi berean, apurtzaileak diren estrategia emozional eta materialez ari gara. (Esteban, 2016:270).

Zergatik ekartzen dut gai hau zaintzari buruzko atal batera? Arrazoi bat baino gehiagogatik.

Lehena, zaintzaren gaiari ordezkio begiratu emateko parada ematen digulako. Aurretik idatzi bezala, emakume hauek partekatzen eta elkarrekin egiten dutenari erreparatuz gero (elkarren babesa, babes ekonomiko, material, psikologiko eta morala, egunerokotasuna sustatzeko jarduerak, osasunari eta hazkuntzari dagozkien zaintza-lanak, edo aisialdirako jarduerak eta jarduera sozialak eta politikoak), zaintzaren inguruko gogoetak beste norabide bat hartzen du, zain-

tzeaz gainera, babes mota asko eta aisialdirako eta politika arloko jarduerak ere aintzakotzat hartuz.

Bigarrena, kontzeptuala. “Elkar babeste” kontzeptua nahita ari naiz erabiltzen, zaintzaren terminoarekin bateratzeko edota horrez gain kontzeptu egokiagoren bat bilatzearen eta erabiltzearen alde egin nahi baitut.

Elkar babeste kontzeptu hau Piotr Kropotkin-ek erabili zuen lehenengoz, 1902an argitaratu zuen *Elkar-babestea: eboluzioaren faktorea* liburuan, Ingalaterran erbesteratua zegoela. Hainbat testuingurutan eta gizaki eta animaliekin eginiko behaketetan oinarriturik, darwinismo sozialari erantzun nahi izan zion, eboluzio-prozesuan lankidetzak eta elkar-babesteak zuten papera argudiatuta, eta lehia eta elkarren arteko borrokaren garrantzia baztertuz. Orduz geroztik, oro har, ingurune anarkistetan izan da erabilia kontzeptu hau.

Bada, kontzeptu hau adiskidetasunaren ikerketa osatzeaz gainera, zaintza terminoa baino zabalagoa eta egokiagoa da, nire ustez, gizakien artean gerta daitezkeen elkar-egite eta partekatze ekintza guztiak sartzeko (babes morala, ekonomikoa eta politiko-ideologikoa, aisialdia eta jarduera politikoak partekatzea,

egunerokotasuneko osasun edo bestelako zaintza-lanak...).

Elkar babeste termino honek baditu zenbait bertute,

zaintza-lanetatik harago baitoa, komunean egiten diren bestelako jardueri (sozialak, politikoak, aisialdikoak...) ere berebiziko garrantzia emanez. Hitz batez, familia-, ahaidetasun- eta adiskidetasun-loturen analisi integral, horizontal, erlazional eta ez-erromantikoaren alde egiten ari naiz. Ereduek honek gutxieneko iraunkortasuna duen eta bizitzaren sostengurako oinarritzakoa den edozein harreman —odolkidea, afektibo-sexuala zein laguntasunezkoa— maila berean jartzen du. (Esteban, 2016:271).

Eta horretarako, Marshall Sahlins antropologoak (2010) proposaturiko ahaidetasunaren definizioa nabil aintzat hartzen: *“Munduan elkarren solidario pentsatzen diren pertsona eta pertsona-taldeen arteko harreman sareak”* (in Porqueres, 2012: 11).

Dena den, kontzeptualizazioari dagokionez, eta betiere ere termino bat baino gehiago erabiltzearen komenigarritasuna azpimarratuz, aukera gehiago

egongo lirateke. Horien artean “elkarrekikotasuna” lehenetsiko nuke.

Antropologiak erakutsi du gizaki guztiak, ezein kultura edo testuinguru historikotan, eman/hartu/itzuli harremanetan murgildurik daudela, maila sinbolikoan zein materialean.

Hala, elkarrekikotasun kontzeptuak zaintzarenak baino balio handiagoa izan dezake kultura artean aplikatua izateko, haren balio unibertsalagatik. Halaber, alderdi sinbolikoa eta materiala batera aintzat hartzen dituela.

Mendebaldean, alabaina, badugu berariazko arazo bat elkarrekikotasunarekiko, merkatuan oinarrituriko sistema ekonomiko batean bizi garenez, eremu “privatuetara” (familia edo adiskide harremanak...) edo elkartruke txikieta bakarrik mugaturik gelditzen baitzaigu.

Elkarrekikotasunaren erabilpen “perbertsoaren” beste maila bat, emakumeekin gertatzen dena litzateke: besteentzat egiten dutenagatik (besteez ardurtzea) ez baitute ezer jasotzen, edo ez ematen duten neurri berean. Emakumeek, beraz, beren burua dohaintzan eskaintzen dute, alienazio prozesu batean sartuz.

Emakumeen alienazioa berarekin ez dakarren giza elkarrekikotasunaren edo elkar babestearen teoria baten alde egingo nuke nik, beraz, esentzialismoak eta naturalizazioak ekidinez, eta gaur egungo familia harremanen eta ideologiengatik gaindituz. Ondorioz, zaintzaren arloko eztabaidak familia, ahaidetasuna, gurasotasuna eta bizitzaren sostenguaz hitz egitera behartzen gaitu, orain arteko kritikan sakonduz.

—epilogo—

GORPUTZEZ GORPUTZ IRAUN. MUGIMENDUA ELKARREKIN-EGOTE GISARA

Testu honetan azpimarratu nahi izan dudanez, politikaren arloan berrikuspen eta eraldaketa sakonean gaude murgilduta. Erronka garaia deitu dut, ikusteke baitago noraino izango garen kapaz eraldaketa horiei taxuz aurre egiteko.

Politika orain arte nola ulertu dugun ondo laburbilduta gelditu da Amador Fernández-Savater-en (2011) hurrengo aipuan. Politika izan da, haren ustez, “*bizitzaren zentzu-horizonte bat*”:

Ekintza, intentsitate kolektiboak, manifestazioak, borroka, zentro sozialak, proiektuak eta pizturiko disputak, milaka topaketa eta bilera, irakurketak eta ikasketak, afektuak eta ametsak. Nork bere eraldaketa gizarte eraldaketarako higiduraren baitan.

Politikarien politikarekin baino gizarte mugimenduekin zeukan zerikusia. Gainera jausten zi-

tzaigun errealtatetik aireratzeko antolatutak zeuden guneak, ekiteko moduak eta konplizitateak.

Badakigunaren irudia proiektatu behar dugu, dena ondo doala, gauzak kontrolpean ditugula, indartsuak garela. Baina, ez digu gehiegi eskatzen aktibismo politikoak? Borroka, emaitzak, erantzuna ahoan, morala beti goian, borroka, emaitzak, erantzuna ahoan, beti adoretu, kanpora herabeak, zalantziak, malenkoniatsuak...

[...]

Politika bertan behera gelditu zen erantzun moduan, irtenbide moduan, erreferentzia mundu zehatz moduan, baina tinko dirau galdera moduan, zauri bat adina irekia. (in Esteban, 2015:79).

Franco Berardi, Bifo ezizenez ezaguna den filosofo italiarrak esan du matxinada kolektiboa fenomeno fisiko, afektibo eta erotikoa dela. Eta gehitu du:

Modernitatearen utopiak gaztaroaren gorespen testosteronikoaren gainean eraikiak izan ziren. Utopia bortitzak eta itxaropentsuak izan ziren. [...] Gure indarra ezin da gazte-olderrean oinarritu, gizonezkoen agresibitatean, batailan,

lankidetzaren eta partekatzearen gozamenean baizik. Desiraren alorra berregituratzea, gure espektatiben ordena aldatzea, aberastasuna birdefinitzea da, agian, gizarte eraldaketa guztien artean, garrantzitsuenetakoa. (in Esteban, 2015:80).

Gorespen edo asaldatze hori “testosteroniko” deitzearekin ez nago ados, oso determinista iruditzen baitzait, gizon askoren jarrera oldarkorra gizarteratze-prozesuekin erlazionatu ordez, horren azalpen biologizista gauzatzen baitu.

Hala ere, Berardiren planteamendua ezin indartsuago eta eraldatzaileagoa iruditzen zait, euskal gizartearen oraingo unearentzat egokia bezainbat.

Eta ideia hori mugara eraman nahiko nuke, esanez, bai feminismoa baita gizarte mugimenduak ere, edozein fenomeno politiko, ezer baino gehiago, fenomeno fisiko, afektibo eta erotikoak direla. Edo horrela ikus ditzakegula. Eta horrek praxi politikoa beste non-baitetik begiratzeko eta beste norabait bideratzeko aukera irekitzen digula.

Politika eta aktibismoa fenomeno fisikoak lirateke.

Orrialde batzuk geroago, politika hezur-haragizko dinamika gisa uler daitekeela defendatuko dut, horretarako gorputzaren teorian oinarriturik.

Fenomeno afektiboak ere bai.

“Afektua” hitz polisemikoa da, esangura oso ezberdinak dituen, eta komenigarria litzateke une bakoitzean zer adierazten ari garen argitzea. Nire aldetik, ez naiz sentimenduekin edo afektibitatearekin lotzen ari, baizik eta ingelesezko “affect” terminoaren esanahia ari naiz baliatzen. Jo Labanyi Espainiako kultur ikasketetan adituak ederki argitu du adiera hori. Afektua, harentzat,

izakiek eta gauzek, kanpoko indarrek eta energiek gure gorputzean duten inpaktua da. Afektua kanpo munduak gure gorputz-sentsazioetan duen inpaktu aurrekontzientea da. Beraz, afektua gure inguruneari emandako erantzun fisiko bat-batekoa da, pentsamendua baino lehengokoa, zeinak, segundo batzuen buruan, sentsazioa eta pentsamendua bateratuko dituen, kontziente bilakatuta. Geroago, sentipena emozio bilakatuko da: beldurra, lotsa, etab.

Azkenik, politikoa erotikoa ere bada.

Audre Lorderen (2003), eta Gilles Deleuze eta Felix Guattariren lanetan (1975) oinarrituko naiz erotikoaz aritzerakoan. Izan ere, "Erotikoaren erabilerak. Erotikoaren boterea" saiakeran, Lordek gogoratu du Antzinako Grezian Eros-ek sortzeko ahalmena eta harmonia pertsonifikatzen dituela:

Erotismoa gure "niaren" zentzuaren hasieren eta gure sentipen indartsuenen kaosaren arteko lekua da. Barne-gogobetetze zentzua du, zeina, behin esperimentatuz gero, ezingo dugun gure helburuetatik egotzi. Zeren sentimendu sakon horien osotasuna esperimentatu eta haren boterea aitorturik, autobegirune-zentzu bategatik, ezingo baitiogu gutxiago exijitu geure buruari. Kaos jainkoarengandik sortua den Erosek ahalmena eta harmonia irudikatzen du, bizi indarra. (2003:11).

Lorderen esanetan, emakumeentzat erotismoa bizi indarra da, sexualitatearen irakurketa estuekin edo "emakume-armen" ideiarekin zerikusirik ez duena.

Erotismoa, politikarako eta bizitzarako sortze ahalmena eta bizi indarra dela gehituko nuke nik.

Autore horrek erotismoaren eta pornografiaren artean delineatzen duen marra zorrotzak ez nau gogobetetzen baina iradokitzailea da oso haren teoria jardute soziala eta gizakien arteko edozein arlo beste era batera pentsatu ahal izateko.

Deleuzek eta Guattarik desiraren inguruan egin duten berrirakurketak ere ematen du zer pentsatua. Haientzat ere, desira ez da falta edo hutsunea, baizik eta ahalmena, indar eragilea, motorra. Desira eraikuntza da, norbanakoek eratzen dituzten agentziaren, dimentsioen, lerroen, norabideen anizkoiztasuna. Jarioa, isuria. Erotismoak eta desirak bizitza goratu egiten dute.

Baina ez gara nahastu behar. Politikaz, desiraz edo erotismoaz autore horiek esandakoak ez du inolako antzik kapitalismoaren planteamenduekin, zeinetan modu zehatz batez desiratzera eta ekoiztera derrigortuta gauden, Alexandra-Odette Kypriotaki idazle greziarrak adierazi duenez:

Kapitalismoak desiratzeko, kontaktatzeko, ekoizteko gaitasun amaigabea exigitzen digu. Denbora bat etengabe lanpetua, presiopean, emaitzen zain. Gaur derrigorrezkoa da pozik ego-

tea, optimista eta baikorrek izatea. (in Esteban, 2015:81).

Ez al gaude hortxe ere euskaldunok, gure diskurtsoen eta gure ekintzen balizko emaitzen menpe, pentsatuz inoiz, nolabait, ez dakigu nola baina nolabait, “zoriona” etorriko zaigula?. Zorionaren bilaketa itsua eta askatasuna lotzen dituen filosofia kapitalista hori gurera ere heldu da.

Politika ulertzeko ordezeko adierazpen “fisiko, erotiko eta afektibo” horrek, derrigorrean, subjektu politikoa ere birformulatzeraz eramaten gaitu. Pablo Romerok (2013) honela definitu du subjektu politiko klasikoa:

Bere burua aski duen norbanakoa, borondate propio eta munduan ekiteko gaitasunarekin (guztiz bereizia dagoen mundu-objektuaren gainean ekiten duen subjektua), gure munduaren zimentu legez, beste fenomeno guztiak zintzilik dituen erreferentzia eztaba daezina: bozkatzeko duen norbanakoa, edozein bizitza-jazoera aurrean arrazoizko erabakiak hartzen dituen norbanakoa, erosten duen norbanakoa, kontsumitzen duen norbanakoa... eta sufritzen duena, maitatzen

duena, frustratu egiten dena, gaixotzen dena, azken batean, bizitzaren bilakaerari bakardadean aurre egiten diona. (2013:100).

Baiezta daiteke Euskal Herrian horrela ikusi dugula eta ikusten dugula subjektu politikoa (eta gehituko nuke: harro gaude). Guretzat ere subjektu politikoa, subjektu burujabea, autozentratua, bere burua kontrolpean daukana edo eduki dezakeena da.

Tradizio anarkista duten herrialde edo testuinguruetan errazago sortu ohi dira politikaren eta subjektu politikoaren inguruko berrikuspenak eta kezkak. Baina, kultura marxistaren seme-alabak garen neurrian, horren abantailak eta desabantailak ere noztzen ari gara. Eta ez naiz esaten ari politika ulertzeko edo bideratzeko era bakar bat egon behar duenik.

Ideia, helburu, proiektu... superamaituen, superborobilen denbora ez al zaigu bukatu?

Kypriotakik gehitu du politika eta mobilizazioak “elkarrekin-egote” gisa ulertu beharko genituzkeela eta “elkarrekin-egoteko” modu berriak topatu beharko genituzkeela, “elkarrekin-egote” hori berregin, birsortu, egunerokotasunean gozatu, praktika handien edo xumeen bidez.

Eta ideia ahaltsu horretan sakontzeko gorputzaren teoriari begiratu diezaiokegu.

Brian Turner-ek (1994) nabarmendu du XX. mendearen bigarren erdialdeko gizarte mendebaldarraren ezaugarri nagusietako bat gorputzaren zentraltasuna dela, teknologia biomedikoen eta kontsumoaren hazkundearekin eta gizarte-mugimenduen aldarri-ereduekin lotu dituen.

Gorputzaren teoriatik argudia daiteke edozein eraldaketa sozial zein politikok berarekin dakarrela gorputzasunaren eraldaketa. Eta alderantziz, gorputzen berreratzeak eragiten dituela nahitaez mudantzak norbanakoan, talde identitateetan eta ekintza kolektiboetan.

Hortaz, feminismoan ageriko mudantzak gertatzen ari direla esaten badugu, ondorio logikoa litzateke pentsatzea gure gorputzasuna ere, elkarrarremantzeko, mendekotasuna sentitzeko eta teorizatzeke, aldarriak zehazteko, ekintzak gauzatzeke... dugun modua birmoldatzen ari direla. Ziur naiz haragiberri-tze prozesu horietan sakontzeak etorkizunerako gakoak ekarriko dizkigula.

Praxi politikoa (feminista) hezur-haragizko jardue-ra gisa uler daitekeela defendatu dugunok gero eta

gehiago gara, gorputz politikoen sorrera eta hedapena izan baita estrategia feminista nagusietakoa, bai pentsatzeko bai ekiteko. Gorputz politiko bat, haragizaturiko irudikapen, irudi, ideia, jarrera, teknika eta portaeren konfigurazioa da, gorputz-eraketa zehatza:

Gizarte mugimendu batek (gure kasuan, feminismoak) kontzienteki edo inkontzienteki bulztatua, banaka edo talde mailan gauzatzen dena. Gorputz politiko batek beregain daramatza pertsona, generoa eta gizarte harremanak ulertzeko, eta mundua ezagutu, begiratu eta eragiteko modu zehatzak, errealitateari eusteko, erantzuteko eta eraldatzeko moduak (edo saioak). (Esteban, 2013:193).

Adibideak soberan ditugu, abortuaren aldeko ekin-tzetatik banda feministetara, autodefentsa tailerrak barne.

Ezein herri mugimendu, azken batean, gorputz kolektiboa da:

Norbanako gorputzak mugiarazten eta lotzen dituzten ekintzen bidez eratuz doan gorputz kolektibo bat, gorputzak hedatuz, berriztatuz eta artikulatuz doazen heinean sortzen den emozio

eta energia partekatu bat, ideologiaz osaturik dagoena, jakina. (Esteban, 2013:168-169).

Gorpuztasuna teoria eta praxi feministaren berezko osagaia izan da betidanik. Baina esan liteke kultura mendealdarrak sorrarazi duen adimenaren eta gorputzaren arteko bereizketari buruzko kritika sakonduz doan neurrian, feminismoa ere gero eta somatizatuago dagoela. Eta gazteak (batez ere) gero eta jabetuago daude feminista nagusien kontzientziaziorako ere zutabe izan zen bereizketa horren albo-kalte teoriko, politiko eta pertsonalez.

Politika “elkarrekin-egote” gisa uler dezakegula esaten dudanean, gorputzen arteko harremanaz ari naiz, non gorputzen arteko mugak lausotu eta gorputzak berak desitxuratuta suerta daitezkeen, hezur-haragizko kolektibo bat osatuz.

Elkarrekin-egote hori eraldaketa sozialarekin lotu beharko litzateke, noski, ez bainaiz inmobilizazioaz edo pasibotasunaz hitz egiten ari. Eta horrek erronka berriak ekartzen ditu bai teorian eta ikerkuntzan baina baita gogoeta sozialean ere.

Gizarte edo kultura bat ezin dira interpretatu testuinguru ezberdinetan era ezberdinak hartzen dituzten sinbolo eta erritual-multzo gisa bakarrik, ezta al-

dagai sozio-ekonomikoen multzo huts bezala ere. Gizarte eta kultura ez lirateke soilik alderdi normatibo, araugile, sinboliko edo soziologikoa.

Era berean, gizakiak ez ginateke ideologien edo sinboloen ontzi edo garraiobide hutsak edo zenbaki soilak. Bizitzak badu dimentsio korporala, emozionala, materiala, performatiboa, eraikitzailea, produktiboa. Sentitzen dugunak pentsatzeko era bat eragiten duelako eta alderantziz.

Etsenplu bat ematearren: emakumeoi amatasun eredu hegemoniko eta zehatza inposatzen zaigunean, emakumeen eta umeen arteko harremana ikusteko eta harreman hori bizitzeko modua ere irakasten zaigu. Emakume askok sentitu ohi duten erru sentimendua ez da ez kasualitatea ezta ideia hutsa ere, haragiztaturiko sentipena baizik.

Feminismoa somatizatu dugula esaten dudanean, esan nahi dut munduarekiko dugun arreta, aditasuna, mundua aldatzeko ekintzak, ez direla soilik kognitibotik, arrazoitik sortzen, baizik eta gorputzetik eta gorputzarekin gauzatzen direla. Baina gorputz horiek elkarrarreman estuan daude. Gure gorputza mundura zabalik dago beste gorputzekin, objektuekin, paisaiekin elkarrarreman intimoan.

Euskaldun izatea edo feminista izatea, beraz... ekiteko eta sentitzeko erak dira, besterik ez. Eta ikuspegi teoriko honek ez digu soilik balio gizartekoa beste era batera ikertzeko edo interpretatzeko, politikoa ulertzeko eta eraberritzeko ere baliagarria izan daiteke, edo hori da argudiatzen ari naizena. Gonbidapen bat besterik ez.

Gorputzez gorputz iraun du feminismoak. Eta gorputzez gorputz egingo du aurrera.

BIBLIOGRAFIA

- Abásolo, Olga (2010) "Diálogo: Mari Luz Esteban e Isabel Otxoa. El debate feminista en torno al concepto de cuidados". *Boletín ECOS*, 10, urtarrilamartxo. Ikus: <http://www.fuhem.es/media/ecosocial/file/Boletin%20ECOS/Boletin%2010/DIALOGO%20Esteban-Otxoa.pdf>
- Ahmed, Sarah (2004) *The Cultural Politics of Emotion*. Edinburgh: Edinburgh University Press.
- Ahmed, Sarah (2010) *The promise of Happiness*. Duke University Press.
- Aizpuru Joaristi, Alaitz; Altonaga Begoña, Bakarne (koord.) (2014) *Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntzaz*. Bilbo: UEU-Udako Euskal Unibertsitatea.
- Álvarez, Amaia; Lasarte, Gema (ed.) (2012) *Genero eta gorputza Euskal literaturan eta kulturen*. Bilbo: EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- Aresti, Nerea; Aranguren, Maialen (argitaratze) "Women above All: The Autonomous Basque Feminist Movement (1973-1994)". In: Bermúdez,

Silvia; Johnson, Roberta (ed.) *A New History of Iberian Feminisms*. Toronto, University of Toronto Press.

Bermúdez, Silvia; Johnson, Roberta (ed.) (2017) *A New History of Iberian Feminisms*. Toronto: University of Toronto Press.

Calle, Ángel (2003) “Los nuevos movimientos globales”, *Papeles del CEIC*, Nº 7.

Carrasco Bengoa, Cristina (1988) *El trabajo doméstico. Un análisis económico*. Bartzelona: Universitat de Barcelona.

Castillo, Isa; Retolaza, Iratxe (koord.) (2013) *Genero ariketak. Feminismoaren subjektuak*. Donostia: Edo! Argitaletxea.

Castro, I.; Esteban, M.L.; Fernández de Garaialde, A.; Menéndez, M.L.; Otxoa, I.; Saiz, M.C. (2008) “Ez da berdintasunik izango zerbitzu publikorik gabe eta zaintza lanak banatu gabe. Politika feminista baterako zenbait ideia”. Ponentzia. *Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak*. Portugalete (Bizkaia).

Connell, R.W. (1987) *Gender and Power. Society, the Person and Sexual Politics*. Cambridge: Polity Press.

Cornwall, Andrea (2016) Women's Empowerment: What Works? *International Development*, 28: 342-359.

Cucó Giner, Josepa (2014) "Trashumancias feministas y translocaciones políticas. Los desarrollos de un feminismo que se reivindica radical y otro". *Endoxa*, 33:219-253.

De León, Magdalena (comp.) (1997) *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Bogotá: Tercer Mundo Editores / Universidad Nacional de Colombia.

Deleuze, Gilles; Guattari, Félix (1975) *El anti-Edipo. Capitalismo y esquizofrenia*. Barcelona: Paidós Ibérica.

Del Valle, Teresa (koord.); Apaolaza, Jose Miguel; Arbe, Francisca; Cucó, Josepa; Díez, Carmen; Esteban, Mari Luz; Etxeberria, Feli; Maquieira, Virginia (2002) *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*. Madrid: Narcea.

De Miguel, Ana (1995) "Feminismos". In: Amorós, C. (dir.) *10 palabras clave sobre mujer*. Lizarra: Verbo Divino, 217-255.

Denman, Catalina; Aranda, Patricia; Cornejo, Elsa (1999); De León, Magdalena (konp.) *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Bogotá: Tercer

Mundo Editores / Universidad Nacional de Colombia". Erreseina. *Región y Sociedad*, 11(18),189-197.

Durán, María Angeles (1999) *Los costes invisibles de la enfermedad*. Bilbo: Fundación BBVA.

Epelde Pagola, Edurne; Aranguren Etxarte, Miren; Retolaza Gutierrez, Iratxe (2015) *Gure Genealogia Feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren Kronika Bat*. Andoain: Emagin Elkartea.

Esteban, Mari Luz (2011) *Crítica del pensamiento amoroso*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

Esteban, Mari Luz (2013) "Gorputzak eta politika feministak. Feminismoa gorputz gisa". In: Castillo, Isa; Retolaza, Iratxe (koord.) *Genero ariketak. Feminismoaren subjektuak*. Donostia: Edo! Argitaletxea, 169-204.

Esteban, Mari Luz (2014) "Relaciones amorosas y comunidades de apoyo mutuo: diálogos con los estudios del parentesco y la familia desde las experiencias de mujeres feministas vascas", 663-682. In: *Actas del XIII Congreso de Antropología de la Federación de Asociaciones de Antropología del Estado Español*. Tarragona: Uni-

versitat Rovira i Virgili. <http://digital.publicacion-surv.cat/index.php/purv/catalog/book/123>.

Esteban, Mari Luz (2015) "Euskal feminismoa eta eza-gutzaren zirkuituak: mugimendua, unibertsitatea eta emakumeen etxea". In: Biglia, B., Curiel, O. eta Esteban, M.L. *Ikerkuntza Feministarako epistemologiari eta metodologiari buruzko gogoetak. Lan Koadernoak/Cuadernos de trabajo*, 67:37-48. HEGOA / UPV/EHU: Bilbo.

Esteban, Mari Luz (2016) "Maitasun-harremanak eta elkar babesteko sareak edo komunitateak: emakume feministen esperientziak". In: Esteban, Mari Luz; eta Hernández García, Jone M. (koord.) *Etnografía feminista Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*. Bilbo: UEU / EHU, 261-275.

Esteban, Mari Luz; Hernández García, Jone M. (2016) *Etnografía feminista Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*. Bilbo: UEU / EHU.

Etxebarrieta, Oihana; Rodríguez, Zuriñe (2016) *Borroka armatua eta kartzelak*. Zarautz: Susa/Lisipe.

Fernandez Boga, Mercedes (2012) *Escuelas para el empoderamiento de las mujeres: nuevas expe-*

riencias de formación y transformación feminista en la sociedad vasca. Master Amaierako Lana, Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra (UPV/EHU).

Fernández-Savater, Amador (2011) "Crisis de la presencia. Una lectura de Tiquun". In: <http://www.-espaienblanc.net/Crisis-de-la-presencia-Una-lectura.html> (2011-07-09).

Foucault, Michel (2003) *Hay que defender la sociedad*. Madril: Akal.

Gaztelumendi, Bertha; Naredo, María (koord.); Astigarra, Juana Mari; Ormazabal, Sabino; Pego, Laura (2016) *Violencia de motivación política contra las mujeres en el caso vasco*. Gasteiz: Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkartea.

Gelb, Joyce (1992) "Feminismo y acción política". In: Russell J. Dalton eta Manfred Kuechler (ed.) *Los nuevos movimientos sociales: un reto al orden político*, 193-217. Valentzia: Edicions Alfons el Magnànim-Institució Valenciana d'Estudis i Investigació-Generalitat Valenciana.

Gil, Silvia L. (2011) *Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la dispersión*. Madrid: Traficantes de Sueños.

- Gilligan, Carol (1982) *In a Different Voice*. Cambridge: Harvard University Press.
- Giner, Salvador; Lamo de Espinosa, Emilio; Torres, Cristobal (1998) *Diccionario de Sociología*. Madrid: Alianza.
- Guillo Arakistain, Miren (2013) "La in-corporación de la investigación: políticas de la menstruación y cuerpos reproductivos". *Nómadas*, 39:233-245.
- Guillo Arakistain, Miren (ed.) (2017) *Festak, genero-harremanak eta feminismoa: begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak*. Bilbo: UEU-Udako Euskal Unibertsitatea.
- Hernández, Jone M. (argitaratze) "Multifaceted Feminism: Promoting Diversity in the Twenty-First Century Basque Country". In: Bermúdez, Silvia; Johnson, Roberta (ed.) *A New History of Iberian Feminisms*. Toronto: University of Toronto Press.
- Hernández, Jone M.; Imaz, Elixabete (2010) "Demythicalizing, Unveiling, Challenging: A Review of Twenty-five Years of Feminist Academic Production (1985-2010)". In: Esteban, Mari Luz; Amurrio, Mila (ed.) *Feminist Challenges in the Social Sciences: Gender Studies in the Basque*

Country. Current Research Series, 2. Center for Basque Studies-University of Nevada, Reno / UPV/EHU, 55-70.

Illouz, Eva (2007) *Intimidaciones congeladas. Las emociones en el capitalismo*. Madril: Katz.

"Indarkeria matxista. Pankartaz harago ekiteko ordua". *Larrun*, 204. zka. http://www.argia.eus/-astekaria/docs/2489/azala/larrun_204.pdf

Iturbide Rodrigo, Ruth (2016) *Utopía romántica contemporánea, género y ficción audiovisual. Un estudio de caso: "El Barco"*. Doktore-tesia. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014) *Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantzia eta horizontaltasunaz hausnartzen*. <http://joxemizumalabe.eus/liburuak/DHGE-1.pdf>

Juliano, Dolores (2008) "Prólogo". In: Zabala, Begoña. *Mujeres en movimiento. Movimiento de mujeres*. Tafalla: Txalaparta.

Labanyi, Jo (2010) "Doing Things: Emotion, Affect and Materiality". *Journal of Spanish Cultural Studies*, 11(3):223-233.

Lagarde y de los Ríos, Marcela (2012) *El feminismo en mi vida. Hitos, claves y topías*. Ciudad de Mexi-

co: Gobierno de la Ciudad de México / Instituto de las Mujeres del Distrito Federal.

Lorde, Audre (2003) "Usos de lo erótico. Lo erótico como poder". *La hermana, la extranjera. Artículos y conferencias*. Madrid: Horas y Horas.

Llona González, Miren (2000) "Polixene Trabudua, historia de vida de una dirigente del nacionalismo vasco en la Vizcaya de los años treinta". *Historia contemporánea*, 21:459-484.

Malo, Marta (2004) "Prólogo". In: Zenbait autore. *Noiones comunes. Experiencias y ensayos entre investigación y militancia*, Traficantes de Sueños, Madril, 13-40.

Martínez González, María (2015) *Identidades feministas en proceso. Reiteraciones relacionales y activaciones emocionales en las movilizaciones feministas en el Estado español*. Doktore-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Martínez Palacios, Jone (koord.); Ahedo Gurratxaga, Igor; Rodríguez Lara, Zuriñe; Suso Mendaza, Alicia (2017) *Innovaciones democráticas feministas*. Oñati: Dykinson.

Martínez Portugal, Tania (2015) *La violencia sexista en colectividades sociales y políticas de izquierdas:*

casos y procesos de resiliencia de mujeres activistas. Master Amaierako Lana. Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra (UPV/EHU).

Mauss, Marcel (1991) "Ensayo sobre los dones. Motivo y forma del cambio en las sociedades primitivas". In: *Sociología y Antropología*. Madril: Tecnos, 1991 [1.a frantsesez, 1923/24], 153-263.

Masson, Lucrecia (2015) *Epistemología rumiante*. Fanzone.

Montero, Justa (2016) "Feminizar la política". *Viento Sur*, Abenduak 3. <http://vientosur.info/spip.php?article11970>

Padiglione, Vincenzo (1978) *L'Amicizia, storia antologica di un bisogno estraniato*. Erroma: Savelli.

Pérez Orozco, Amaia (2013) "La sostenibilidad de la vida en el centro... ¿y eso qué significa?". Ponencia. *IV Congreso de Economía Feminista*. Sevilla: Universidad Pablo Olavide.

Pernas, Begoña (2015) "¿Violencia de género o terrorismo machista?". *Trasversales*, 36. <http://www.trasversales.net/t36bp.htm>

Porqueres, Enric (2012) "La persona mediadora: el parentesco a la luz de la cosmología". *Ankulegi*, 16:11-27.

Precarias a la Deriva (2004) *A la deriva (por los circuitos de la precariedad femenina)*. Madrid: Traficantes de Sueños.

Romero Noguera, Pablo (2013) "Tiqqun en el Sur de Italia: magia, 'crisis de la presencia' y crisis del sujeto clásico". *Estudios*, 3-3:94-106.

Ruddick, Sara (1989) *Maternal Thinking. Towards a Politics of Peace*. Boston: Beacon Press.

Sahlins, Marshall (2010) "What kinship is (part one)". *Journal of the Royal Anthropological Institute*, N.S., 17:2-19.

Sarachild, Kathie (1978) "Consciousness-Raising: A Radical Weapon", in: *Feminist Revolution*, Random House, New York, 144-150. <http://scriptorium.lib.duke.edu/wlm/fem/sarachild.html>

Scheper-Hughes, Nancy (1997) *La muerte sin llanto. Violencia y vida cotidiana en Brasil*. Barcelona: Ariel.

Turner, Bryan (1994) "Avances recientes en la Teoría del cuerpo". In: Bañuelos Madera, C. (koord.) "Monográfico sobre Perspectivas en Sociología

del Cuerpo". *REIS-Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 68:11-39.

Ugalde, Mercedes (1993) *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*. Bilbo: EHUKO ARGITAPEN ZERBITZUA.

Valcárcel, Amelia (1997) *La política de las mujeres*. Madril: Cátedra/Feminismos.

Vázquez, Norma (2003) "Las escuelas para el empoderamiento". <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb-021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/32871.pdf>

Zabala, Begoña (2008) *Movimiento de mujeres. Mujeres en movimiento*. Tafalla: Txalaparta.